

## Herririk Herri

Plateruena Kafe Antzokia, diru bilketa kanpaina betean, 10. urteurrena prestatzen dabil > 14



## San Fausto berritzen

Durango Udalak San Fausto auzoa berritzeko plana jarri du martxan. Urbanizazioagaz lotutako hainbat obra garatuko dituzte. Gizarte etxea eraikitzeko proiektua, berriz, bertan behera utzi dute. > 3

Lehior Elorriaga

## Otxandioko herritarren arteko elkarbizitza indartzeko egitarau zabala prestatu dute > 4

Otxandion, Andikonako Foroak eta udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Elkarbizitzen Jardunaldiak antolatu dituzte. Ezberdin pentsatzen dutenen arteko elkarbizitza baketsu eta normalizatu eraikitzeko gakoak diren gaien inguruko hausnarketa egitea dute helburu. Gaur, *Hablan los ojos* dokumentalaren ondoren, ETak hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren alargun Rosa Roderok eta Joxan Agirre preso ohiak hartuko dute parte mahai inguruan.



# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
946 824 550 • [alkimax@alkimax.net](mailto:alkimax@alkimax.net)  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



ADAR-BIRRINTZAILEA



ENBORRAK ZATITZEKO MAKINA



GASOLINAZKO MOTORDUN AITZURRA



MOTOZERRA



ZULAGAILUA

### Durungaldea > 6

Kirol probetan mendi ingurua zaintzeko deialdia egin dute hainbat mendizalek

### Iurreta > 9

Sahara ezagutzeko egitaraua antolatu du Herri Bibliotekak

### Zornotza > 8

Gazteek berdintasunaz duten ikuspuntua aztertzen dabilta

### Mallabia > 4

Uralita batzeko esperientzia pilotua jarriko dute martxan



**Herririk herri**

# Plateruenak 10 urte ospatuko ditu, ekarpen kanpaina betean

“Oraintxe da proiektuari laguntzeko momentua”, esan du Beñat Gaztelurrutiak



Urriaren 31n ospatuko da hamargarren urtemugako jai.

**DURANGO** Markel Onaindia Hamar urte bete dira Durangon euskara eta kulturagintza susta-

tzeko kulturagune herritarra jaio zenetik. Plateruena Kafe Antzokia indarberrituta dator urte-

muga horretara, *Zilarberritzen* prozesuan egitasmoa berritzu duelako herritarrekin batera. Prozesuaren ondorioetako bat kudeaketa parte-hartzailea garatzea zen, eta, hain zuzen, kultur sustapenerako sortu den talde zabalak antolatu du hamargarren urtemugako jai. Urriaren 31n ospatuko da, eta makina bat sortzailek parte hartuko du. 19:00etan kale animazioa hasiko da Andra Marian, eta handik Plateruenera joko dute. 19:30etik aurrera, kantulagunen jarduna, ikuskizun audiodisualak, dantza eta musika eskainiko dituzte. Osteen, pintxoak eta DJa egongo dira, jai giroan jarraitzeko.

Beñat Gaztelurrutiak Plateruenera zuzendariak azaldu du jai giroan batu eta harremanetan sakontzea dela jaiaren helburua.

### ...eta urte askotarako!

Hamar urte beteta, ez du egoera ekonomiko ona bizi Plateruena. Hasierako obrak ekarritako 250.000 euroko zorrari aurre egiten dabil; 1,5 milioi euroko inbertsioa egin zen, eta 250.000 geratzen dira bankuei bueltatzeko. Horregatik, *...eta urte askotarako!* ekarpen kanpaina hasi du, egitasmoa etorkizunean ere bideragarri izan dadin. Izan ere, Gaztelurrutiak dioenez, “jasoko den ekarpen kopuruaren arabera erabakiko da Plateruena aurrera egingo duen ala ez”. Abenduaren 31ra arte iraungo du kanpainak. “Oraintxe da proiektuari laguntzeko momentua”, esan du Gaztelurrutiak. Webgunean edo antzokian egin ahal dira ekarpenak, dirua zein borondatezko lana eskainita.

## Industria erakarri, eta dagoena mantentzea gura du EH Bilduk

**DURANGO** J. Derteano

Durango EH Bilduk beharrezkotzat jo du industria sektorearen garapena, kalitatezko enplegua sortzeko eta azken urteetako egoera zailetik irteteko. Horregatik, plan zehatz bat proposatuko dutela eta koalizioarentzat ildo estrategikoa dela adierazi dute asteon prentsurrekoan EH Bilduko kideek.

Lanbide irailean ateratako datuen arabera, Durango %12,9ko langabezia dago; 1.982 langabetu daude, eta horietatik 437 industria sektorekoak dira. Egoera horren aurrean, EAJren gaur egungo kudeaketaren oinarri “eskualdeko garapen industrialak ez bultzatzea” dela dio EH Bilduk.

Horren aurrean, EH Bilduk industria sektorearen garapena erdigune duen plan zehatz bat proposatuko du. Zutarri nagusi bi izango ditu planak: orain herrian dauden industria enpresei eustea eta beste batzuk erakartzea. Gogoratu dutenez, azken urteetan izan dira herritik joan diren enpresak (Odi Bakar, esaterako), herriguneko garapenak “irentsi” dituelako eta ez dutelako herrian berriz kokatzeko modurik aurkitu.

**Zoru industrialen erabilera** Arau subsidiarioetan “zoru industrial lez jasota dauden lur zatiak badaude, baina ez dira garatu”. Esaterako, Eguzkitza 3 izeneko gunean zoru industrial gisa jasota dagoen 130.700 metro karratu daudela diote.

Gainera, Durango dagoen zentro teknologikoak (Azterlan) bere azpiegiturak handitzeko eskaera egin duela azaldu dute: “Beharrezko ikusten dugu bere hazkundea; proiektuan sinesten dugu, eta Durangoarentzat oinarritzeko da”.

*Irailean hasi zen Platerueneraren aldeko diru ekarpen eta borondatezko lan kanpaina. Dagoeneko hainbat dira euren ekarpena egin dutenak. Horietako batzuek ekarpena egiteko arrazoia zein izan den azaldu dute.*



**Nagore Lozano** Durango

Plateruena Durango egiten duen lana beharrezkoa dela uste dut, udalak kultura arloan egiten duenagaz ez delako nahikoa. Ez dut antzokia desagertzen dela imajinatu gura. Horregatik egin dut ekarpena, eta lagunei ere zabaldu diet mezua. Krisitinen nabil, eta sarri parte hartzen dut *plateruekin*.



**Jose Alfaro** Durango

Proiektu interesgarria, izaeraduna eta gertuko da. Geu Be elkartetik hainbat ekintza antolatu ditugu, eta laguntza eskatzean beti jaso izan dugu. Gure gazteentzat ere erraztasun handiak jaso izan ditugu beti, kontzertuetan egoteko eta. Espazio hori beharrezkoa da Durango.



**Enara Zarrabeitia** Durango

Plateruena egin den lanagaz eta esfortzuz, ezin genezake bakarrik utzi. Etorkizuneko apustua ere bada antzokiari laguntzea. Plateruena, kulturari dagokionez, Durango aldatu du, oraindik hobetzeko gauza asko eduki arren. Erakundeei inplikazioa eskatzeko garaia ere bada.



**Izaskun Sarraoa** Atxondo

Durango estrategikoa da, eta Plateruena behar da bertan. Kulturalki oso ondo dago, eta jendeak lan asko egin du bertan. Hamar urte eta gero jaustea pena litzateke. Urteak daroadaz Aikogaz dantzara joaten. Gainera, etxean asko garez, bazkariak bertan egiten ditugu; oso ondo jaten da.



**Ortzi Egia** Durango

Horrelako ekimenak erakunde publikoetatik bultzatu beharko lirake, eta hutsune hori betetzen gabiltza. Plateruena interesgarria da euskara bultzatzeko, eta Durango ez zeuden hainbat ekintza kultural eskaintzen ditu. Dirua da konpromiso errazena; gehiago hartu behar dugu parte.

### Laguntzaileak:

**BFA DFB** Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko urriaren 24a,  
12. urtea - 563. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaldua Fuertes, Lehior Elorriaga.



# San Fausto auzoa berritzeko plana martxan dago, baina gizarte etxea ez dute eraikiko

Gizarte etxerako aurreikusitako diruagaz finantzatu dute San Fausto auzoaren urbanizazioa



San Fausto auzoko saneamendua eta urbanizazioa hobetuko dituzte datozen hileetan. Lehiar Elorriaga.

## **DURANGO** M. Onaindia

San Fausto auzoak itxura aldatuko du laster. Udalak martxan ipini du Berritu San Fausto plana, eta horri esker urbanizazioagaz lotutako hainbat obra eroango ditu aurrera. Duela 60 bat urte egin zituzten lehenengo etxeak, eta Durangoko auzo zaharkituenetakoa da. Bertako aisialdi eta ekintza sozialetarako bilgune behar zuen gizarte etxea ez dute eraikiko, eta horretarako aurrei-

kusitako diruagaz urbanizatuko dute auzoa.

Udalak informatu duenez, saneamendua, sistema elektriko eta irisgarritasuna hobetuko dituzte. Gainera, plaza txikian aparkaleku bat egokituko dute, eta plaza nagusia berriztuko dute. Trafikoa arintzea ere bada helburuetako bat. Aitziber Irigoras alkateak proiektuaren garrantziaz berba egin du: "Lehentasunezkoa da udalaren-

tzat, San Faustoko auzokideen bizitza kalitatea hobetuko da eta". Pilar Ríos PSE-EEko bozeramailea ere pozik agertu da,

Saneamendua, sistema elektrikoak eta irisgarritasuna hobetuko dituzte

auzoak behar handiak dituelako: "Behingoz, argia ikusiko du hain beharrezkoa den eta San Faustoko auzokideek hainbeste eskatu duten proiektu honek". Aurtengo aurrekontuetan akordioa lortu zuten alderdi biek, eta plana horregatik garatuko dela azaldu dute. Eider Uribek (Bildu) esan du plana eurek bultzatu zutela Hirigintza Batzordean, eta jeltzaleei eta sozialistei etekina atera gura izatea egotzi die.

Baina ez dago argi zer gertatuko den planeko ideia garrantzitsu batez, etxeak berritzeaz. Fatxadak, sarbideak eta teitatuak konpontzea aurreikusten zen, baita igogailuak ezartzea ere. Udalak 150.000 euro gorde ditu obra horiei diruz laguntzeko, baina etxejabeen diru-sarreen arabera ere izango da.

## Gizarte etxerik ez

Gizarte etxerik ez dute egingo, Uriberen arabera, auzokideek eurek ez dutelako gura. Umeek jolasteko gune estali bat gura dutela esan du Bilduko kideak, eta pilotalekua zabaltzea ere bai. Pilota federazioak erabiltzen du egun batzuetan, eta horregatik itxita egoten da. Erabiltzen ez den egunetan, behintzat, auzokoentzat zabaltzea proposatu du EH Bilduk (Bildu eta Aralar).

## Prozesu parte-hartzailea

Udalak 700.000 euro inbertitu berri ditu Kapitanena baserria erosteko eta botatzeko. Izan ere, baserri hori dagoen eremuan egin behar zuten gizarte etxea. Proiektu hori alboratuta, eremu horretan eta Berritzegunea zegoen lekuan zer egin erabakitze dago. Udalak adierazi du prozesu parte-hartzaile bat abiaraziko duela. Joan zen astean auzokideekin batzarra egin zuten udaleko kideek, urbanizazioaren berri zuzenean emateko.

Gizarte etxearen proiekturako lau milioi euro aurreikusi zituzten, eta urbanizaziorako 2,8 milioi euro gorde dituzte. Horregatik, Iker Urkizak (Aralar) gogoratu du beste 1,2 milioi euro daudela inbertitzen jarraitzeko.

## “Auzokideek ez dute sinisten, utopia bat saltzen dabilzala uste dute”

### Auzotarrek zelan ikusten dute proiektua?

Ia 100 bat lagun egon ginen batzarrean, eta jendea susmo txarra hartuta dago. Gizarte etxerako zen dirua murriztu dute, eta falta den milioi bat euro hori non dago? Urtetan agindu izan dute hainbat proiektu egingo dituztela, baina eskola bota besterik ez dute egin. Auzokideek ez dute sinisten, utopia bat saltzen dabilzala uste dute. Ideia ona izan arren, ez dago obra hasteko dataren inguruan konpromisorik. Obra irailean hasiko zela esan zuten, gero abendura atzeratu zuten, eta orain otsailean izango dela diote.

**Etxeak berritzeko diru-laguntzak nahikoa al dira?**  
Jendeak galdetzen zuen ea non

zegoen milioi hori. Onartzen dizut: bizilagunek ez dutenez sinisten, ez dute parte hartzen. Nire ustez, egokia den ikerketa bat egin behar da. Eremu degradatu izendatu gura dute, horrela Jaurlearitzak obran lagunduko lukeelako. Proiektua ona dela uste dut, errentagarria izan ahal delako. Baina zenbaki handiei buruz berba egiten gabilza, eta pertsonen arabera zehaztu barik. Langile auzoa da, jende nagusiagaz eta pisuetan sartu berri diren gazteekin. 20.000 euroko inbertsioa egin behar badut, akaso, atzera egingo dut; hamar urtez hilero 70 euro ipinita, agian, aurrera, nire ideia hemen bizitzea bada.

**Parte hartuko al duzue prozesuan?**



### Txus Diez

Gure San Fausto Berria elkartearen presidenteordea

Umeek jolasteko gune estali bat eskatzen dabilza bizilagunak. Udazken ederra egiten dabil, baina okertzean, hotz egiten du kalean. Eztabaida-mahai bat sortzea proposatu dute, udaleko teknikariek, enpresakoekin eta auzokideekin. Noski, Gure San Fausto Berria elkarte mahaian egongo da, eta auzotarrak informatuko ditugu. 30 urtez ahaztuta eduki gaituzte, eta egokia den orori helduko diogu. Hau ere Durango da, eta gure zergak ordaintzen ditugu.

**HANPORAKETA**

**MALLABIA**<sup>n</sup>,  
Azaroaren 2an, 17:30ean, Mallabia I. Hirol Etxean

Arrate Ibarra Etxebarria	Eneko Arrate Soluze	Gorka Ostolaza Ibaran "Pobis"	Malen Amenebar Larrañaga	Nerea Ibarzabal Salegi	Peru Vidal Gurrutxaga

www.bertsazole.eus/bizkaikotxapelketa



## Luis Fuentes CNTko kidea Agurrik Gabeak ekitaldian

Borrokalari antifaxistak omenduko dituzte gaur

**DURANGO** Jone Guenetxea Durango 1936 kultur elkarteak Agurrik Gabeak ekitaldiaren zazpigarren edizioa antolatu du gaurko; 20:00etan izango da, Kurutzian. Iaz memoria historikoaren inguruan inauguratu zuten eskulturaren espazioan garatuko dute ekitaldia. “Modu batera edo bestera, 1936ko altxamendu faxistaren ondorioak sufritu zituzten pertsonak gogoratu eta omendu gura ditugu”, azaldu dute elkarteko kideek.

Tronperri dantza taldeko dantzarien ondoren, Luis Fuentes Frankismoaren inpunita-

tearen kontrako plataformako kide eta CNTko Memoria Historikoaren Arloko arduradunak hitzaldia eskainiko du. Ekitaldiagaz amaitzeko, Uxue Alonso abeslariak, Durangaldeko musikari talde batez batera, abesti bat eskainiko du.

“1936ko altxamendu faxistaren ondorioak sufritu zituztenak gogoratu eta omendu gura ditugu”



lazko ekitaldian ateratako argazki bat.

## Elkarbizitzen Jardunaldiak, ezberdinen artean zubiak eraikitzeke helburuagaz

‘Hablan los ojos’ dokumentala eskaini, eta mahai ingurua egingo dute gaur



Ezberdin pentsatzen dutenen arteko elkarbizitzarako pausoak eman gura dituzte jardunaldiek.

**OTXANDIO** Joseba Derteano Andikonako Foroak eta udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Elkarbizitzen Jardunaldiak ekimena antolatu dute elkarlanean. Ezberdin pentsatzen dutenen arteko elkarbizitza baketsu eta normalizatu eraikitzeke gakoak diren gaien inguruko hausnarketa bultzatzea da jardunaldi hauen helburua. Andikonako Foroa sentsibilitate politiko ezberdinetako norbanakoz osatuta dago.

Gaur, 19:00etan, *Hablan los ojos* dokumentala eskainiko dute kultur etxean. Ondoren, mahai inguruan dokumentalaren zuzendari Gorka Espiauk, ETAk eraildako Joseba Goikotxea ertzainaren alargun Rosa Roderok eta Joxan Agirre preso ohiak parte hartuko dute. Lokarrigaz gauzatutako ekitaldia da.

Azaroaren 7an, 19:00etan, *Mariposas en el hierro* dokumentala eskainiko dute kultur etxean, eta, askotariko indarke-

ria sufritu duten emakumeen testigantzetatik abiatuta, elkarbizitza baketsu bat eraikitzeke hainbat ekarpen entzuteko aukera egingo da.

Azkenik, azaroaren 14an, 19:00etan, elkarbizitza normalizatu baterako printzipio demokratikotzat jotzen duten erabakitzeke eskubidearen inguruko mahai ingurua egingo dute Mairondoko gimnasioan. Iñaki Zarrara, Gemma Zabaleta eta Ibon Arbulu izango dira hizlariak.

## 1980an TVEk Garain grabatutako programa emango dute domekan

Baserriko bizimoduari buruzko saioa grabatu zuen TVEk Momoitioganen

**GARAI** Markel Onaindia 1980an Garaiko Momoitiogane baserrian egon ziren TVEko kamerariak, Milikua-Atutxa familiaren bizimodua grabatzen. *Vivir cada día* telebista saioan inguru ugaritako bizimoduak erakusten zituzten, eta baserri horretara jo zuten Euskal Herrikoa azaltzeko. *El caserío vasco* izena ipini zioten atal horri. Bada, grabazio hori berriro proiektatuko dute domeka honetan,



LAZARO MILIKUA

“Gure bizimodua erakusteko aukera bat izan zen”



Momoitioganen grabatu zuten telebista saioa. Milikua-Atutxa familia.

Europako Ondarearen Jardunaldien harira. 11:30ean hasiko da emanaldia, Elizabarrin.

Telesaioa ikusteaz gainera, grabazioaren kontakizuna egingo du Lazaro Milikuak. Aste pare bat eman zituzten kamerariak grabaketetan, kamerentzako errete eta guzti. Antza denez, euretako bat durangarra zen, eta horregatik heldu ziren Momoitioganera. Sei ziren familian, gurasoak eta lau alabeseme. “Aita natural egon zen aktore lanetan”, esan du Milikuak. Kameraren aurrean gaztelaniaz berba egitea kosta egin zitzaizela azaldu du, eta grabazioan parte hartzeko dudak eduki arren, aurrera egin zutela: “Espainia osoan gure bizimodua erakusteko aukera bat izan zen”.

Garaiko udaletxeko idazkaria da Milikua, eta orduan ere bazen; dagoeneko 40 urte bete ditu ardura horretan. Akorduan du udaletxean irudi batzuk hartu zituztela, eta elurra ere egin zuela egunen batean. Gastronomia ere ez zen falta izan: “Txarriboda egin genuen”.

## Abenduan amaituko dituzte Lourdes etorbideko lanak

**ELORRIO** M.O.

Udalak prentsa oharra bidali du Lourdes etorbideko obra zelan doan azaltzeko. Irailean hasi zituzten lanak, eta abenduko lehenengo hamabostaldian amaituko direla adierazi dute udal arduradunek, “erritmo onari esker”. Lourdesko Ama ikastetxearen inguruan errepidea eta aparkatzeko sistema berrantolatu gura dute, eta lurpeko kontainer sistema ere ezarriko dute obragaz. Arduradunek esan dute helburu bi dauzkala proiektuak: ikasleei ikastetxera doazenean segurtasuna eta erraztasuna eskaintzea, eta bizilagunei “hirigintza kalitate altuagoa ematea”.

Orain arte egingo diren lanak ere zeintzuk diren kontatu dute. Nizeto Urkizu kalean hormigoia bota dute, eta lehenengo espaloietan zangak zabaldu dituzte, instalazioen sare berria egin ahal izateko. Hormigoia bota aurreko lanetan ibili dira Lourdesen.

Guztira, 339.000 euroko aurrekontua erabiliko du udalak obra aurrera eramateko.

## Uralita batzeko esperientzia pilotua jarriko dute martxan

**MALLABIA** J.G.

Urkiola landa garapen elkarrekin, Mallabiko Udalagaz batera, zuntz-zementua edo uralita duten elementuak modu egokian batzeko zerbitzu pilotua jarri du abian. Udalak gogoratu duenez, zuntz-zementua edo uralita guztiz kutsakorra da, amiantoz osaturik dagoelako.

Material hori baimendutako enpresa batek kendu behar du. Zerbitzu hau jaso gura dutenek Urkiola landa garapen elkarrekin jarri beharko dute kontaktuan azaroaren 10a baino lehen, 946 203 611 telefono zenbakiaren edo [urkiola@urkiola.org](mailto:urkiola@urkiola.org) helbide elektronikoren bidez. Bertan adierazi beharko dute zer elementu mota kendu gura duten, eta kantitatea zenbatekoa den.

Fase pilotu honetan desmuntatutako materiala batzeari emango diotela lehentasuna azaldu dute. Desmuntaketaren kostua interes dutenek ordaindu beharko dute, beti ere, eskakizun guztiak aztertu ondoren, aurrekontuetan dagoen diru partida nahikoa ez bada.





# ERROTARITXUENA DURANGO

## Errotaritxuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdegunek eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera



## BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



[www.solvias.es](http://www.solvias.es) Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



**sukia** Zure etxean zaude  
Estás en tu casa



# Kirol probetan mendia zaintzeko deialdia egin dute mendizaleek

Ibilbideak markatzeko erabiltzen diren plastikoak ugaritu egin dira mendian

**DURANGALDEA** M. Onaindia Azken urteetan modan ipini dira mendian garatzen diren kirol probak: mendi martxak, las-

terketak, bizikleta ibilbideak... Mendiaz gozatu, eta kirola egiteko aukera eskaintzen dute. Baina, kontraesana dirudien

arren, zenbaitzuek ez dute mendia zaintzen. Adibidez, probetan ibilbideak markatzeko erabiltzen diren plastikoak ugaritu



Neberondon plastiko ugari lurtean botata, batu barik.

egin dira, amaitzean ez direlako batzen. Zenbait mendizalek egoeraz ohartarazi, eta mendia zaintzeko deia egin dute.

“Kontu apur bat eduki, eta gure esku dagoena egin dezagun”. Zigor Iturrieta mendi korrikalari ezagunaren berbak dira. Lagun batzuekin Mugarra ingurutik entrenatzen zebilela, hainbat plastiko ikusi zituen, eta bere kritika plazaratu gura izan du: “Mugarra plastikoz josita egon da; pilo bat batu ditugu”. Oiz inguruan ere plastiko batzuk urtebetez egon zirela gogoratu du. Duela urte bitik hona igarri du handitu dela zikinzeria kopurua, ez azken hiletan bakarrik. Horrela jarraituz gero, mendizalaren batek salaketa ipintzeko arriskua ikusten du Iturrietak: “Aldundikoak haserretuko dira, eta ez dute utziko martxak egiten. Batzuen utzikeriagatik denok ordaindu beharko dugu”. Eta, hain zuzen, ia egunero mendi bueltak egiten dituen irakurle batek kritika bidali du ANBOTOra, Neberondo

inguruko argazkiekin. “Nor bait mendia apaintzen ote dabil? Gutxienez, jarri dituenak kendu ditzala”, dio irakurleak.

## Berrerabiltzen saiatu

Mendiko probak antolatzen ibiltzen da Erlantz Zaldunbide, Zaldai taldeko kidea. Martxetan, azkeneko partaideekin antolatzailerak joaten direla adierazi du, aurreko egunean ipinitako markak kentzeko. Plastikoa ganaduentzat kaltegarri direla uste du, esaterako. “Lotsagarria” iruditzen zaio mendian dagoen plastiko kopurua: “Ez dakit zer zentzugaz utzi dituzten. Ez badugu denon artean zaintzen, gure kaltera ere etorri ahal da”. Iurretako jaietako martxan beste probaren batekoak ziren zakukada bat plastiko ere batu zuten. “Asko daude, eta bisualki orientazioa kaltetzen dute”. Plastikoa, hurrengo martxetan berrerabiltzen saiatzen dira Zaldaiakoak. Plastikoez aparte, espraien erabilera ere salatu dute Iturrietak eta Zaldunbidek.

## 55.000 eurogaz gazteen enpresak bultzatuko dituzte

**DURANGALDEA** M.O. Joan zen egunean egindako osoko bilkuran hainbat diru-laguntza onartu zituzten Aman-komunazgoan. 165.000 euro emango dituzte, eta horietatik 70.000 lan arloa sustatzeko izango dira. Esaterako, 55.000 euro erabiliko dituzte 16 eta 29 urte arteko gazteen enpresa proiektuak bultzatzeko. Udalek eta Al-

Aisialdian euskara indartzen duten taldeentzat 10.000 euro gorde dituzte

dundiak ere babesten duten Jar Zaitex Martxan egitasmoaren barnean kokatu dute diru-laguntza, prentsa ohar bidez azaldu dutenez. Aho batez onartu zituzten diru-laguntzak.

Aisialdian euskara indartzen duten taldeentzat 10.000 euro gorde dituzte, eta Euskara Sailean beste 6.000 euro ere eskura edukiko dituzte. Desgaitasunen bat daukaten pertsonekin lan egiten duten elkartei 28.000 euro emango dizkiete. Kirolean 51.000 euro egongo dira, Abadiñoko trinketea, Berrizko belodromoa eta Durangoko atletismo-pista erabiltzen dituzten klubetan artean banatzeko.

## Berdintasun teknikari berria ariko da udalean

Bilboko Emari enpresari esleitu diote zerbitzua

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Urte hasieratik berdintasun teknikaririk gabe egon dira Zaldibarko Udalean. Arantza Biegorri alkateak azaldu duenez, tokiko administrazioei zuzenean kontratazioak egitea galarazten dien Espainiako Gobernuaren legeak horrela behartuta, zerbitzu hori azpikontratzea erabaki du Zaldibarko Udalak. Bilboko Emari enpresako teknikari batek beteko du berdintasun teknikari lanpostua, eta enpresa horrek berdintasunerako aholkularitza eskainiko dio

udalari. Bizkaiko Foru Aldundiaren homologazioa du Emari taldeak, arlo horretan laguntza tekniko emateko. Asteaz bost orduz ariko da teknikaria Zaldibarren lanean.

Gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde Zaldibarko Udaletik pausoak emateko lan egingo du teknikariak datorren astetik aurrera, Berdintasun Arloko zinegotziagaz eta herriko emakume elkarteagaz lankidetzan. Berdintasun Plana garatzeko helburuagaz jardungo da, besteak beste.

## 2015erako tasak bere horretan utzi ditu udalak

Bilduren proposamena EAJk ere babestu du

**ATXONDO** M.O. Ohiko udalbatzarra egin zuten eguaztenean, Atxondon, eta 2015erako udal tasak bere horretan uztea erabaki zuten; beraz, 2014koak mantenduko dituzte. Bilduren proposamena EAJk ere babestu zuen.

Rosa Elizburu alkateak azaldu zuen azkeneko hiru urteetan zerga ordenantzak mantendu egin dituztela. Enrique Garatek (EAJ) kezka agertu zuen, tasak, urte batzuetan mantendu ostean, “kolpean” igo ahal direlako. Elizburuk erantzun zuen

sarrerak eta gastuak kontrolatuta dauzkatela, eta hurrengo urteren batean tasak igo behar ko balira, “apurka-apurka” igo-

Alkateak azaldu zuen azkeneko hiru urteetan zerga ordenantzak mantendu egin dituztela

ko lituzketela. Eztabaida egon arren, aho batez onartu zuten udal tasak mantentzea.

## Ariketak egiteko parkea ipini dute nagusientzat

Matzagabarrena auzoan zazpi aparatatu jarri dituzte

**BERRIZ** Amaia Ugalde Beste herri batzuetan egin duten antzera, Berrizen ere parke bio-osasungarria ipini dute. Zazpi makina ipini dituzte Matzagabarrenan, gorputzeko hainbat atal lantzeko eta ariketak egiteko. Egoera fisikoa bizkortzeko eta errehabilitaziorako baliagarriak izaten dira horrelako aparatatuak.

Berrizko Udaletik jakinarazi dutenez, parke bio-osasungarriaren aurrekontua 8.000 eurokoa izan da. Edonork erabiltzeko modukoak dira aparatatuak,

eta bereziki pertsona nagusiei zuzendutako gunea da. Udaletik azaldu dutenez, “makina

Edonork erabiltzeko modukoak dira makinak; bereziki pertsona nagusiei zuzendutako gunea da

horiek sistema immunitarioa, lokomozio aparatua eta aparatatu kardiobaskularra indartzeko aukera emango dute”.

## Gaztetxearen 16. urteurrena gogorarazteko egitaraua

Truke azoka egingo dute, etzi, 17:00etatik aurrera

**ABADIÑO** I.E. Ondiño buruek eragiten, ametsak egi bihurtzen lelopean gogoraraziko dute, asteburuan, Abadiñoko Gaztetxearen 16. urteurrena. Atzo, pintxo-poteagaz eta kantautore biren emanaldiarekin abiatu zituzten ospakizunak, eta biharko eta etziko ere antolatuta dituzte ekintzak.

Azken urteetan urteurrena heltzean egin izan duten eran, bizikleta martxa bat abiatuko dute, bihar, 11:00etan, gaztetxetik. Bizikleta martxatik bueltan, 14:30ean, baba-jana egingo

dute, gaztetxean. Bazkariaren ostean, mikro-ireki saioa egingo dute, besteak beste.

Bizikleta martxa, bazkaria, eta truke azoka antolatu dituzte, besteak beste, 16. urteurrenerako

Domekan, 17:00etatik aurrera, gaztetxearen urteurrenerako antolatu duten truke azokan elkartuko dira abadiñarrak.



# 6 C-MAX '0 km' LIKIDATUKO DITUGU



**FORD C-MAX 0 Km**  
➤ **EDITION Ecoboost**  
Auto-Start-Stop 125 ZP  
5 urteko garantia / 100.000 km

**14.990.00€**

Pive+ finantziazioa

**EDITION PAKETEA**

Atzeko eta aurreko aparkaleku sentsorea  
Active City Stop  
Aurreko laino argiak  
Bidaia kontrola abiadura-mugagailuarekin  
QuickClear haizetako termikoa

**IKUSGAITASUN PAKETEA**

Euri sentsorea  
Argi sentsorea  
Barruko atzerako ispilu autokromikoa

**FORDKONDIA**

Otaola etorb. EIBAR  
Tel.: 943 207 650

**ZIORLA AUTOAK**

Santa Maña kalea, 19 IURRETA  
Tel.: 946 815 135



ford.es



## Gazteek berdintasunaren inguruan duten ikuspegia aztertzen dihardute

Udaleko Berdintasun Sailak hainbat bide ireki ditu Zornotzan 15 eta 29 urte arteko gazteek berdintasunaren arloan duten ezagutza aztertzeko



Gazteekin aurrez aurreko 300 galdetegiak gora egin dituzte.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Zornotzako gazteek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zelaz baloratzen duten eta gaiaren inguruan zenbaterainoko ezagutza duten jakiteko, azterketa bat egiten ari da Zornotzako Udaleko Berdintasun Saila. Azterketa 15 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta dago.

Hiru bide jorratzen dabilta azterketa ahalik eta osatuena izan dadin. Batetik, aurrez aurreko galdetegiak egin dituzte.

Gazteak ibiltzen diren ohiko tokietara joan dira, eta zuzenean

Udaleko webguneko galdetegiak edozein herritarrek eman dezake iritzia azaroaren 10era arte

galdetu diete gazteei gaiaren inguruan, eta euren iritziak eta ikuspuntuak jaso dituzte. Orain

arte, 300 galdetegitik gora egin dituzte. Galdetegiak hiru adin tartetan banatu dituzte (15-19, 20-24 eta 25-29) adin tarte bakoitzeko errealitatera ahalik gehien hurreratzeko.

Bestetik, informazioa batzeko beste bide bat gazteiarekiko lotura duten gizarte eragileekin egindako elkarrizketa sakonak dira. Kirol, kultur, aisialdi eta hezkuntza arloan gazteekin hartu-eman duten eragileak ere informazio iturri egokiak direlako jorratu dute bide hori.

Azkenik, edozein adinetako herritarrei gaiarekiko euren ikuspegia adierazteko bidea ireki diete Zornotzako Udaleko webgunean dagoen galdetegi baten bidez. Bost galderekin osatutako galdetegiak eta azaroaren 10era arte egongo da eskuragarri.

Jasotako informazioagaz ateratako ondorioak abenduan argitaratuko dituzte.

### ZUZENKETA:

Joan zen asteko alean Euskara Plana osatzeko prozesu parte-hartzailea EH Bilduk antolatu zuela idatzi genuen, baina Zornotzako Udalaren ekimena da.

## Plazako urbanizazioa hobetzeko obrak hasi dituzte

**MAÑARIA** Markel Onaindia Herriko plazan eta inguruetan obrak egiten dabilta, urbanizazioa hobetzeko helburuagaz. Udal ordezkariak azaldu dutenez, hilabete honen hasieran ekin zieten lanei, udalak irailaren 30ean proiektua adjudikatu eta gero. Obra aurrera atera ahal izateko, udalak diru-laguntza eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Bada,

Obra aurrera atera ahal izateko, udalak diru-laguntza eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari

Aldundiak erantzuna eman du, eta 27.000 euroko ekarpenagaz finantzatu du plaza konpontzeko egitasmoa.

### Dantza ikastaroa

Bestalde, gaur arratsaldean emango diote umeentzako eskal dantza ikastaroari hasiera. Andra Mari dantza eta abesbatza elkarteak antolatuta, hiru urtetik gorako umeei zuzendutako ikastaroa da. Barikuetan geratuko dira dantza saioetarako, arratsaldeko 18:00etatik 18:30era bitartean. Udaletxean ipini dute hitzordua.

### SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA  
PSE-EE



### Ebola

2009ko azaroan idatzi nuen zutabea A gripearen gainean. Idatzi hari txantxa kutsua eman nion, osasun-agintari politikoek zabaldu zuten alarma soziala guztiz neurritz gainekoa izan zen eta. Izan ere, A gripeak atxikita duen hilgarritasuna erabat jasagarria bada ere, agintariak lagunen arteko kontaktu fisikoa ekiditea gomendatu zuten. Aipatutako txantxa kutsuaren barne, nik kontra-kontrakoa egitea proposatu nuen: alegia, Musu Eguna bat ospatzea proposatu nuen.

Orain honetan, ez nintzen ausartuko txantxa pitin bat ere egitera, aurrean daukaguna ezagutzen den birus arrisku-eguztetako bat baita. Izan ere, ebola hondamen handiko arma biologikoen artean dago sailkatuta. Berri "ona" da jakitea ebolak duen sakabanatzeko ahalmena ertaina dela, beste patogenoekin alderatuta.

Gehienetan ez da kontatzen ebolaren bost espezie daudela. Izena bera Kongoko Errepublikan Demokratikoko Ebola ibaiarena da, han izan zelako lehen agerraldia 1976an. Espezie horri Zaire izena eman zioten, garai hartan horrela zuelako izena Kongo herrialdeak. Gainerakoak Sudan (1976an sortua), Reston (1994), Boli Kosta (1994) eta Bundibugyo (2007) dira. Hots, hilgarritasuna espeziearen arabera da, eta %25-90 tartean egon daiteke. Bost aldaeretatik Zaire delakoa da hilgarriena. Egungo agerraldia Afrika mendebaldean sortu zen 2013an, eta dagoeneko 4.000tik gora hildako izan dira. Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan, ia 9.000 infektatu daude, baina kopuruak gora egiten du etengabe. Horiek datuak baino ez dira. Orain ikustear dago zelaz kudeatzen duten gure agintariak datorrena. Momentuz ikusi duguna lotsagarria da.

## Beharra dutenean frontoia ixteko atea ipini du udalak

Ekitaldietarako espazio zabala ahalbidetuko du

### IZURTZA J.D.

Pilotalekuan hainbat lan egiten ari da udala. Esaterako, gidaridun ate handi bat egokitzen dabilta zabalik zegoen aldean. Horrela, udalak komenigarri ikusten duenean, pilotalekua ixteko modua izango du, eta

barruan edozein ekitaldi gartzeko espazio zabala sortuko da. Bestelakoan, pilotalekuak atek irekita jarraituko du, orain arte bezala. Gainera, aldagela ondoan beste ate bat egin dute, egitura metalikoa pintatu dute, eta zorrotzen berriak ipini dituzte.



Pilotalekuan egokitu duten gidaridun ate berria.

**hitz** liburutegia

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

**HELDUENTZAT**  
ZIMURAK  
Paco Roca (2014)

**UME ETA GAZTEENTZAT**  
EZ! DIO MUNSTRO TXIKIK  
Güetler, Helmsdal & Jónsdóttir (2014)

**MUSIKA**  
AZOTE KALDÜZ  
Eskean Kristö (2014)

Eraikuntzarako materiala

**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**BODEGUILLA**

TRANA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85



# Saharara hurreratzeko egitaraua prestatu du Iurretako Bibliotekak

Herri saharauia izango da Munduko Paisaiak ekimeneko aurtengo protagonista



Asteon aurkeztu dute egitaraua prentsaurreko bidez.

**IURRETA** Amaia Ugalde Saharako errealitatea eta bertako kultura ezagutzeko aukera egongo da datozen bi asteetan, Iurretan. Herri Bibliotekak eta herriko hainbat elkartetek egitaraua prestatu dute elkarlanean, Munduko Paisaiak ekimenaren barruan.

Egitarauan hitzaldi bi dira nabarmentzekoak. Urriaren 28an, iluntzeko 19:00etan, Saharako errealitatea gertutik eza gutzen duten hiru elkartetako kideek berbaldua emango dute: Euskadiko Fronte Polisarioko Ordezkaritzako, Herria auzo elkarteko eta Rio de Oro Durangoko elkarteko kideak izango dira hizlari Ibarretxen. Hurrengo egunean, 29an, emakume saharaiaren egoerari buruz berba egingo du Arantza Chacón

SEADen Lagunak elkarteko kideak, 19:00etan.

Ikasleei bideratutako tailerra ere egongo da: urriaren 31n DBH 4. mailako eta batxilergoko ikasleek tailer praktikoetan landuko dute Saharako egoera.

**Elkartasun mendi martxa** Munduko Paisaiak ekimeneko ekitaldi jendetsuena Zaldai mendi taldeak antolatzen duen mendi martxa izaten da. Aurtun, azaroaren 9an egingo dute, eta Iurreta iparraldeko auzoetatik ibiliko dira. Ibilbide luzea -23 km- eta laburra -15 km- egongo dira aukeran. Aurretik edo egunean bertan, 08:00etan, gosari eta guzti, eman ahalko da izena, eta izena ematerakoan ipinitako dirua Rio de Oro elkartera bideratuko da.

## Saharako kulturgintza

Saharari buruzko ipuin, liburu, film eta diskoekin gida bat kaleratu du Herri Bibliotekak, eta zine klubean Eztizen Mirandaren *Egiaren hazia* eta *Lekukoero oimena* lanak ikusiko dituzte azaroaren 5ean, egileagaz. Azaroaren 7an, ipuin kontalariak Saharara bidaiatuko dute, eta irakurketa klubean ere Saharako liburuak landuko dituzte, azaroaren 12an eta 13an.

## Senidetza 2002tik

Prensaurrekoan gogoratu dutenez, Iurretako Udalak 2002an senidetza hitzarmena sinatu zuen La Guera *daira* edo herrixkagaz. Besteak beste, hirugarren adinekoentzat etxe bat eta gazteek ikasteko beste etxe bat eraikitzen lagundu du udalak.

## Oromiñoko Erdiko errota bisitatuko dute zapatu honetan

### IURRETA A.U.

Erdiko errota edo Oromiñoko errota izenagaz ezaguna den baserrian bisita gidatua egingo dute zapatu honetan. Europako Ondarearen Jardunaldien harira, zapatuan, 10:00etan egingo dute lehen bisita, gaztelaniaz, eta 11:30ean bigarrena, euskaraz.

Erdiko errota martxan ipintzeko moduan dago gaur egun, eta etxerako irina egiten dute bertan

Garai batean hiru errota egon ziren Oromiñon: goikoa, behekoa eta erdikoa. Dokumentuetan ageri denez, Erdiko errota 1.600. urte inguruan martxan zegoen dagoeneko. Duela hamar-hamabi urtera arte kanporako egiten zutela lan azaldu du Mertxe Ibarra etxearen jabeak. Batez ere, artoa ehotzen zuten, "eta garia ere bai, gari sasoiari". Errota martxan ipintzeko moduan dago gaur egun ere, eta etxerako irina egiten dute.

Bisita gidatuan, errota bisitatzegaz batera, euskal kulturaren etxeak izan duen garrantziaz berba egingo dute. *Etxea* da, izan ere, aurtengo Europako Ondarearen Jardunaldietan lantzen dabilzan gaia.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Gure Esku Dagoren batzarra 28an

**DURANGALDEA** > Abadiñoko Gure Esku Dagok batzar informatiboa egingo du martitzenean, 19:00etan, Txanportan. Esaterako, azaroaren 8ko Zurrilako ekimena azalduko dute. Zornotzako GEDen esanetan, ekitaldirako bonu zein autobus txartelak urriaren 28an eta azaroaren 2an (12:00-14:00) eskuratu daitezke Politenan.

### Sanfaustoetan bi atxilotu egon dira

**DURANGO** > Udaltzaingoak emandako datuen arabera, jaietan bi atxilotu egon dira: bata indarkeria sexistagatik eta bestea etxeko indarkeriagatik. Gainera, intoxikazio etilikoagatik lau pertsona artatu dituzte: tartean, adingabe bi. Lapurretegi dagokienez, hamasei ebasketa salatu dituzte, iaz baino hemeretzi gutxiago.

### Balmasedara bisita gidatua egingo dute

**GARAI** > Martitzenean, hilak 28, Balmasedara (Bizkaia) irteera egingo dute Garaiko jubilatuek elkartetik. Bertan, besteak beste, Boinas La Encartada museoa ikusiko dute. Garaitik 09:30ean irtengo dira. Domakara arte eman daiteke izena Herriko Tabernan. Bazkideek 23 euro ordaindu beharko dute irteera eta bazkariagatik.

## Iritzia



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

# ...eta urte ASKOTARAKO!

DIRU EKARPEN ETA BORONDATEZKO LAN KANPAINA

Plateruenak hamar urte beteko ditu udazken honetan. Sasoi seinatu eta aldakorrotan, urteurren osoa daramagu zilarberritzen: Durangaldeko sortzaile eta elkarrekin kultur egitasmoaz gogoetatu dugu, eta herri-eragileen parte hartzea hobetzeko lan-taldeak sortu; Durangoko Udalarekin ere partekatu dugu hausnarketa hori, kulturgunearen kudeaketa bideragarri izan dadin baldintza hobek adosteko. Orain herritar guztiei dei egin gura dizuegu Plateruenean parte hartu dezazuen, kultur egitasmoak gauzatzeko borondatezko lanean jarduneko zein kulturgunearen etorkizuna ziurtatzeko diru ekarpena eginez.



[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)



## Berbaz

Mari Jose Alberdi | EHUko Erizaintza irakaslea | Hernani, 1969

# “Mañariak duen osasun egoera bizi kalitatearen ikuspuntutik aztertu dut”

Doktoretza tesia Mañariko osasun egoeraren inguruan oinarritu du Alberdik

> BERBAZ Jone Guenetxea

Sei urtez landutako tesia Madrillgo Konplutense Unibertsitatean defendatu eta gero, Mañariko herrikideen aurrean aurkeztuko du Mari Jose Alberdik urriaren 31n, 19:00etan, udalbatzar aretoan. Mañariko osasun egoera emakumeen ikuspuntutik aztertu du. Horretarako, Mañarian bizi edo lan egiten duten 26 emakumeren laguntza izan du.

Noiz ekin zenion tesiari?

Proiektua 2008an aurkeztu nuen, Madrilén, eta elkarrizketekin 2009an hasi nintzen. 2010 eta 2011 artean etenaldi bat izan nuen. 2014ko uztailearen 10ean aurkeztu nuen defentsa egin nuen.

Zelan bururatu zitzaizun tesia Mañariko emakumeen osasun egoeran oinarritzea?

Erizaina naiz, eta eskolak ematen ditut Donostian. Nire ikasgaiak, Osasun Publikoa eta Osasun Komunitarioa dira. Erizainak baditu funtsezko bi arlo: bata, ospitalean egiten duena, eta, bestea, komunitatean egiten duena. Beraz, nik Mañaria ezagutu nuenean, beti etortzen zitzaidan burura Mañariko komunitatearen inguruko osasun egoera. Antropologian lizentziatua naiz, beraz, horrek ere bidea ireki zidan doktoretza egiteko. Emakumearen ikuspuntua lantzea ez zen nire hasierako asmoa. Datuak nola jaso pentsatu nuenean, tresnetako bat elkarrizketak egitea izan zen. Mañariko nortzuk elkarrizketatu erabakitzeke zirraborroa egiten hasi nintzenean, emakumeen aurpegiak ateratzen zitzaizkidan. Beraz, nahi gabe emakumeen ikuspuntua ateratu zait.

Tesia zelan planteatu zenuen?

Prozesua luzea izan da. Hasiera batean plangintza fase bat dago, besteren artean helburuak finkatzeko. Tesiaren helburu nagusia Mañariko komunitatearen osasun egoera aztertzea izan da. Horren inguruan hiru puntu aztertu ditut: zer osasun arazo dauzkagun, zer aktibo edo

“*Tesia egiteko 20tik 70 urtera arteko emakumeak elkarrizketatu ditut*”

“*Mañaria estetikoki zuri-beltza da; oso polita edo oso itsusia izan daiteke*”

egoera positibo ditugun, eta zer irtenbide egon daitezkeen. Beste datu batzuk ere hartu ditut kontuan, udaletxean jasotakoak, argazkiak eta abar. Hurrengo fasea, datuak jasotzearena izan zen eta, hirugarrena, datu guztiak aztertearena.

Emakumeen elkarrizketak zelan egin zenituen?

26 emakume elkarrizketatu nituen. Egindako ikerketa kualitatiboa izan denez, emakumeen aukeraketa ez zen estatistikoa izan. Tamaina aukeratzekoan, kontuan hartu nuen Mañariak bost auzo dituela: auzo bakoitzeko emakume bat aukeratu nuen, eta herrigunean bizi diren beste emakume batzuk. Gainera, adin tartea ere kontuan hartu nituen. 20tik 70 urte bitarteko emakumeak daude ordezkatuta. Esan beharra daukat emakumeek asko erraztu zidatela prozesua. Ateak ireki zizkidaten, nahiz eta hasieran, “nik ez dakit ezer Mañariari buruz”, esaten zidaten. Eta elkarrizketa aurrera joan ahala: “Ordubete pasa da honezkero?”.

Zelako ondorioak ateratu dituzu? Mañarian osasun arazo batzuk daudela ikusi da. Osasuna zentzu zabalenean aztertu dut, eta ez bakarrik gaixotasunak. Hasierako

galdera hauze zen: “Gustura bizi zara Mañarian? Bizi kalitatea egokia da?”. Horrek zerikusia dauka osasunagaz. Ildo horretatik landu ditudan arloak oso zabalak dira: demografia, ekonomia, espazioa, bizi ohiturak, sozializazio prozesua eta zainketa.

Demografia arloan, populazioak behera egin du?

Jendea herritik joan egin da, eta egoera hori aztertu dugu. Populazioa gutxitu egin da. Azken urte hauetan badirudi jaiotza tasan igoera txiki bat badagoela, eta jendea etortzen ari dela, baina joera orokorra gutxitzea da. Gai honetan jendearen sentimenduak agertzen dira. Pena dute: “Zer pena gure jendea joan izana”, diote askok.

Ekonomia ere landu duzue.

Etxean egiten diren ordaindu gabeko lanak agertzen dira, ordaindutako lanekin batera. Auzolana ere landu dugu. Mañariko bizi kalitatean horrek guztiak eraginaritu du.

Espazio publikoan zer behar ikusten dute?

Alde batetik, oztopo arkitektonikoak daude, nahiz eta bost urteko prozesu honetan hobekuntza batzuk izan diren. Bestetik, Mañariak arazoak ditu errepide nagusiarekin, baita auzoetako bideekin ere, eta gai hori ere azalartzen da. Diseinua ere landu dugu, hau da, estetikoki gustatzen zaigun edo ez. Ildo horretatik oso konplexua den gai bat ateratu da: harrobiak. Harrobiak bizi kalitatean duten eraginari buruz hitz egin dute. Mañaria estetikoki zuri-beltza da. Begiratzen duzun lekuaren arabera oso polita edo oso itsusia izan daiteke. Gainera, mugikortasunaren eta trafikoaren gaia ere irten da. Kotxeak garrantzi handia du herrian, eta garraio publikoaren falta ere sumatu da.

Nola eta non sozializatzen dira mañariarrak?

Jendeak hitz egin du sozializazio formalaz, eta, ildo horretatik, 1997an itxi zuten antzinako



eskola aipatu dute. 2008an irekitako Haurreskolaz ere jardun dute. Sozializazio ez-formalaren inguruan, gizarteratzeaz eta parte-hartzeaz hitz egin dugu. Gehiengoa gizarteratuta sentitzen da, eta harreman positiboa dute ingurukoekin. Sozializazio ez-formala burutzeko, berriz, gune nagusiak Mañariko plaza, frontoia, kultur etxea, eliza eta abar dira.

Mañaria ezagututa, ondorioen batek harritu zaitu?

2005etik hemen bizi naizen arren, gauza berriez konturatzeko nabil etengabe. Mañaria-

ri bizitza handia ematen diote jaiak eta ospakizunak. Horrek zerikusi handia du sozializazio ez-formalarekin. Txitxi-burruntziaren ohitura, esate baterako, nik ez nuen ezagutzen. Auzolanarena ere interesgarria iruditu zait. 1993an ermitau taldea sortu zen, ermitak ondo mantetzeko. 2012tik auzolanen esperientzia hori beste bizilagunentzat ere zabaldu da, beste lan batzuk egiteko. Gizarteratzea, harremanak eta parte-hartzea bultzatzeko baditu hainbat elementu positibo Mañariak, eta herri txiki hauetan hori mantentzea esfortzu handia da.



**Eñaut Aiertzaguena Brabo** | Komikigilea | Iurreta, 1988

## “Nire lana jendarteratzen asko lagundu dit finantzaketa kolektibo bidezko kanpainak”

Aiertzaguena 'www.irribarrez.info' webgunean komikiak argitaratzen jarraitzeko kanpaina abiarazi du

### > LITERATURA Itsaso Esteban Zein izan da Irribarrez proiektuaren hasiera?

Apirilean hasi zen dena. Nire lehengusuak politikari batzuen karikaturak egitea eskatu zidan, berak egin behar zuen lan batean laguntzeko. Urkulluren marrazkia egitea oso konplikatu egin zitzaidan, eta, horretan nengoela, gogoratu nuen Zaldieroa Berriako marrazkilaria arazo berbera eduki zuela. Aitzakia horregaz solasaldi bat izan genuen Twitterren Zaldieroak, lehengusuak eta nik, eta hainbat komiki zirriborro trukatzeko hasi ginen. Horrela sortu zitzaidan harra.

### Egunero komiki zinta bat sortzeko lanari ekin zenion orduetik aurrera?

Bai, Europako hauteskundeak etorri ziren maiatzean, eta selektibitatea, eta udalekuko lana... Neuretzat, eta ingurukoei barretxo bat atera guran, jarraitu nuen aipaturiko gai horien inguruan margotzen. Orduan proposatu nion neure buruari: “Ia kapaza naizen egunero zinta bat egiteko!”. Astelehenetik domekara, egunero tira bat egiten hasi nintzen. Ondoren, lagunartean egiten nituen lanak WhatsApp bidez zabaltzen hasi nintzen... Sasoi horretan sententzia baten esperoan ere bageunden ni eta beste hainbat lagun, eta komikigintzaren istorio hau izan zen hortik arreta kentzeko modua.

Udan atseden hartu zenuen, eta irailean ekin zenion berriro. Bai. Atseden hartzeko beharra nuen udan. Ondoren, absolutio-epaiaren berri izan genuenean, pentsatu nuen orain arriskatu ezean, gero eta zailagoa egingo zitzaidala pausoa ematea. Gustura sentitzen naizen lan honetan murgiltzea erabaki nuen: [www.irribarrez.info](http://www.irribarrez.info) webgunea

eta sare sozialetako profilak zabaltu nituen. Denetan bistartzen ditut eguneroko zintak. Beste lan batzuetarako denborarik uzten ez zidan zeregin honi nire denbora eskaintzeko, lana zelabait errentagarri bihurtu behar nuela ohartu nintzen. Horregatik erabaki nuen [www.karena.eu](http://www.karena.eu) webguneko finantzaketa kolektibo bidezko sistema baliatzea.

### Eskatu duzuna baino bi aldiz diru gehiago lortu duzu.

Bai, 500 euro biltzeko helburuz abiatu nuen kanpaina. Eskatutako dirua bi egunetan eskuratua genuen, eta oso pozgarria da ikustea jendeak laguntzen jarraitzen duela. Hasieran ingurukoek ere ez zuten proiektuan gehiegi sinesten, eta neuri ere zalantza sortzen zidan, baina

saiatzea erabaki nuen. Nire lana jendarteratzen ere asko lagundu dit finantzaketa kolektibo bidezko kanpaina honek.

### Apiriletik asko findu duzu sorkuntza prozesua?

Hasieran pertsonaiak banan-banan egin, eta ordenagailuagaz osatzen nituen binetak. Baina zerbait naturalagoa nahi nuen, eta zinta osoa, konposizio osoa, eskuz marrazten hasi nintzen. Gero, marrazkietan itzalak ere sartzen hasi nintzen. Gai konkretu batzuen inguruan jarduteko, nire pertsonaia finkoak sortzen ere joan gura dut: jentilen saila horrela sortu dut.

### Zelakoa da eguneroko zinta hori sortzeko prozesua?

Normalean, iluntzean, etxera heltzen naizenean, koaderno hartu, bineta markatu, eta zirriborroa egiten dut arkatzez. Hori erreparatu, eta, gustura banago, lasai joaten naiz ohera, bada-kidalako hurrengo eguneko 09:00etan argitaratuko dudala.

### Idatzi ere egiten duzu. Noiz hasi zinen margotzen?

Txikitatik gustatu izan zait margotzea, baina neure burua ez dudanez graziosotzat, sekula ez dut pentsatu gai izango nintzenik honelako lanak egiteko. Barre algararik beharbada ez dute egingo, baina nire istorioekin jendeari egunero irribarretxo bat ateratzeko erronka ipini nion neure buruari. Horrela sortu zen Irribarrez proiektua.

## Irudi eta berba gutxigaz hoberen

“Mezu zuzena dutenak, itxura batean soilenak direnak, dira sarritan landuenak”



Finantzaketa kolektibo bidezko kanpaina azaltzen du Aiertzaguena tira honetan.

nak, baina jarrera horretatik saiartzeko gauzei begiratzen.

Ahalik eta irudi eta berba gutxienez nahi izaten ditu adierazi ideiak, mezuak. Eskoziako erreferendumaren harira egin zuen zintagaz hori lortu zuela uste du; ardi larrua jantzita ezkatututako otsoak alde egitea erokeria dela esan arren, ardi bat hesitik ausart ateratzen ari zela erakusten zuen irudiak: “Tira horregaz asko disfrutatut nuen”, dio Aiertzaguena.

Bere komikiak komunikabideren batean argitaratzeko modurik ote zegoen pentsatu zuen hasiera batean Iurretako komikigileak. Baina hori oso zail ikusten zuenez, finantzazio kolektiboaren bidetik abiatu zen. Zain egon barik.

Marrazketa eta idazketa uzartu gura litzuzke Aiertzaguena etorkizunean: “Idatzitakoa neuk ilustratzea, esaterako”. “Baina ikusiko dugu ideia hori zertan gauzatzen den”, dio.

Egunero komiki zinta bat sortu, eta [www.irribarrez.info](http://www.irribarrez.info) webgunean argitaratzeko bere buruagaz daukan konpromisotik haragoko lan karga sortu dio finantzaketa kolektibo bidezko kanpainak Eñaut Aiertzaguena iurretarrari. Bestelako hainbat proposamen ere jaso ditu kanpaina abiatu zuenetik.

Politikari ezagunak bai, baina marrazkilaria inguru hurbileko pertsonak ere agertu izan dira Aiertzaguena lanetan: Iurretako San Migel jaiei buruzko hainbat pasarteren protagonista izan dira bere lagun eta familiarrekoak, esaterako, eta udalekuko lankideak ere izan ditu inspirazio.

Gai batzuen inguruan umoretik aritzea zail egiten zaiola aitortu du Eñaut Aiertzaguena.



> **MUSIKA** Itsaso Esteban  
Silboberri elkartearen 20. urteurrena gogoraziko dute zapatuan, Durangoko Landako Gunean. Kontzertua eskainiko dute bertan, eta Euskal Herriko 90 txistularik parte hartuko dute. Txistulariez gainera, abeslariak eta beste hainbat musikari ere gonbidatu dituzte emanaldira; Portu Brass taldea eta Barakaldoko perkusio taldea ariko dira, esaterako. Gasteizko Nurat abesbatza, Igorreko Arantzarte dantza taldea eta Durangoko L'Atelier taldea ere gonbidatu dituzte emanaldi horretara.

Guztira, 150 partaide izango dira emanaldian, eta Jabier Ituarte Aulestiren zuzendaritzapean ariko dira biharko Durangoko emanaldian.

Bizkaiko musikari eta kulturari leku berezia eskaini gura izan diote Silboberriren 20. urteurrenako kontzertu honetan. Ohi bezala, Silboberri emanaldi honetarako enkargaturiko hainbat abestiren estreinaldiak egingo dituzte doako sarrera izango duen kontzertuan; Jon Etxeandiarren *Limurtzen*, Ruper

## 150 partaide elkartuko dira bihar, Silboberriren 20. urteurrenerako

Durangoko Landako Gunean kontzertua eskainiko dute, bihar, 20:00etan



luz Durangoko Landako Gunean eskaini zuten emanaldiaren argazkia. Voemy Factory.

Lekueren *Bostadar*, Karlos S. Ekizaren *Urkiolako bidea* eta Jabier Ituarteren *Arrosa bat* eskainiko dituzte lehenengoz.

Besteak beste, Silboberri txistu bandako Aitor Amilibia, Sergio Torices, Iñaki Martin, Ortz Torices eta Fernando Aurreko-

txea jardungo dira obra horiek txistuagaz interpretatzen.

Duela hogeitun urte Silboberri elkarteak sortu zutenetik, txistuak eskaintzen dituen aukeraz izan dute elkartekideek helburu. Helburu horregaz hainbat

ekimen eta emanaldi antolatu dituzte txistua bestelako instrumentuekin uztartuta. Txistuari inguruko aukerak zabaldu guran, jazz doinueta maldatu izan dituzte euren obrak, eta filmetako musika ere eskaini izan dute txistuagaz, esaterako.

## Durangoko taldea bigarren, K-movie film lehiaketan

4.000 euroko saria jaso du Durangoko seikoteak

### > FILM LABURRAK

Bizkaiko Foru Aldundiak Azkue Fundazioagaz batera antolatu duen film laburren lehiaketan bigarren saria jaso du Durangoko sei laguneko taldeak.

Gazteen euskararen inguruko gogoetak film labur forman jasotzeko antolatu dute lehiaketa

*Zaunk* izeneko filma aurkeztu dute lehiaketara ([www.vimeo.com/102104093](http://www.vimeo.com/102104093) webgunean dago ikusgai), eta 4.000 euroko bigarren saria eskuratu dute. Joan zen zapatuan, Gernikako Astran egin zuten K-movie jaial-

dia, eta bertan jaso zuen saria Nerea Arregi, Gorka Madrazo, Ixone Aroma, Aritz Lasarguren, Saioa Agirre eta Asier Vera gazte durangarrek osaturiko seikoteak. "Euskarak dituen berezitasunak eta bere alde egiten diren ekimenak ezagutarazteko" antolatu dute lehiaketa.

### GazteKaldia, Bilbon

K-movie film laburren lehiaketaren antolatzaileen eskutik, Bizkaiko gazteei zuzenduriko topaketa antolatu dute urriaren 25erako. Bilboko Euskalduna jauregian elkartuko dira gazteak euren beharrez, desioez, aukerez eta erronkez jarduteko. Bertan jasotako informazioa erakundeei bidaliko diete ekitaldiaren ostean.

## Lazkano eta 'Abarkas', hirugarren kanporaketan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bihar, Mungian

### > BERTSOLARITZA

Eneko Abasolo *Abarkasek* (Iurreta, 1976) eta Gorka Lazkanok (Berriz, 1980) kantatuko dute, bihar, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketan. Mungian, 17:30etik aurrera abestuko dute sei bertsolariek, Olalde aretoan. *Abarkas* eta Lazkano Durangaldeko bertsolariekin batera, Jon Rementeria, Joseba Artza, Julen Ibarguengoitia eta Peio Ormazabal ere ariko dira.

Maiatzean, Berrizko Kultur Etxean egin zuten Durangaldeko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen Gorka Lazkanok: bertan lortu zuen Bizkaiko Txapelketarako txartela. Duela lau urteko txapelketan finalean kantatu zuenez, asteburu hone-

tako saioan parte hartuko du, bestalde, Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak ere.

Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak eta Gorka Lazkano berrizarrak kantatuko dute bihar

Beñat Ugartetxea mallabitarrek lortu zuen txapelketako lehenengo kanporaketan puntu gehien, eta bera izan zen finalurrekoetarako sailkatzen lehena. Joan den asteburuan jokatu zuten txapelketako bigarren kanporaketa, Gauegiz Arteagan. Oihana Bartra bilbotarrak irabazi zuen saioa.

### GEURE DURANGALDEA

ARANTZA  
ARRAZOLA  
eta MAIDER  
LARRAÑAGA



San Agustin  
kulturgunea

### Bibrizioak eta hangoak

Pentsatu duzu inoiz zein ona izango litzatekeen beti norberak gura duen toki horretan egotea? Eguna hemendik hara ematen dugu, askotan beharrak aginduta, bestetan gogoak eta bestetan halabeharrak. Batzuetan bat egiten dute toki berean hiru kasuek, alegia, gurariak, obligazioak eta kasualitate/kausallitateak. Bestetan gogoak esaten duenaren kontra joan behar izaten dugu beharrak eroaten gaituen lekura. Zorionez, oraindino jendea gurera –teatora– gogoak edo interesak bultzatuta etortzen dela sinetsita egon gara.

Azkenaldian, baina, fenomeno bitxi batek bestelakorik pentsatzera garamatza. Kontua da mugikorrek gure egunerokoan txertatu genituenetik "hemen" edo "han" adierazleek beste zentzu bat hartzen ote dabilzan zalantzan gaudela. Dagoeneko ohitu gara edozein emanaldi ikustera goazenean telefonoak amantatzen, baina, zintzoak izanda, ia inortxok ere ez du/dugu amantatzen, gehienek bozgorailua jaitsi eta "bibrizio" moduan jartzen dute/dugu, "hor" kanpoan gertatzen den hori unean bertan bizitzea ezinbestekoa balitz bezala, lagunaren arteko azken WhatsApp galtzea baino okerragorik egongo ez balitz bezala. Eta, hala, arrunt ere bihurtu da, edozein emanalditan, antzokiaren iluntasunean poltsa edota poltsikoetan ipurtargi dardartiak ikustea... eta entzutea! Tartean, xuxurlaka, "ezin dot hitz egin... teatroan nago", esaten duenik ere bai.

Proposamen bat, oparitu diezaiegun geure buruei (eta ingurukoei) antzerkiaren magiarekin ordu eta erdiz bidaiatzeko aukera. Hemengoari hangoari baino garrantzi handiago eman diezaiegun; izan ere, hemen bai-kaude (90 minutuz bada ere).

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Khea Ziater**  
**NOT (Never On Time)**

Urriaren 31n - 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEAN  
DURANGOKO LEIALDE

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

URRIAK 24 22:00etan <b>THE FULL MONTY</b>	URRIAK 27 17:00 / 19:00 berbarako umeak <b>olgetan</b>	URRIAK 30 20:00etan <b>kantulagun</b>
<b>THE FULL MONTY</b> ANTZERKIA	<b>OLGETAN</b> IKASTURTE HASIERA HAURRENTZAKO EKINTZAK	<b>KANTULAGUN</b> 15€ urteko izen ematea KANTUZALEEN TXOKOA

EGUNEKO MENUA  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300





## “Irakurketa azkarraz kontzentrazio eta ulermen maila jasoak lortzen dira”

**Prakagorri** Durangora hurbildu zenetik ia hiru urte igaro dira eta epealdi horretan ulermen jasoko irakurketa azkarra, memoria, ikas-teknikak, komunikazio eraginkorra etab. bezalako trebetasun intelektualak garatu, hobetu eta areagotzeko egitasmoa zabaldu du gure artean. Irakurleek egun dituzten zailtasunik handienak irakurketa eta ulermen urria dirana jakinda **Prakagorri** burmuinaren baliabideak errotik hobetzeko proposamena dakar.

**Prakagorriren garapen intelektualerako eta ikasten ikasteko metodoak zertan dira?**

Ikasleek, esparru desberdinetan gaitasunak eta ezagutzak barneratu eta hobetzeko lanabes gisa darabilen irakurketaren ulermenean eragozpen eta zailtasun maila handiak dituzte. Idatzitakoa ulertzean urritasun nabarmenak dituzten ikasleen kopurua %30ekoa da eta ikasleen %60ak irakurketaren inguruko arazoak izaten ditu. Beraz, kopuruok ikusita errez ondorioztatu daiteke, horrek guztiak egungo ikas-porrotarengan duen eragin ukalezina. Ikasketetako emaitzak, jasotako informazioa barneratu, gogoan izan, besteez gaitasunak eta erabiltzeko aplikatzen ditugun mekanismoen araberrakoak dira. Guk horretarako

beharrezkoak diren tresna eta metodologiak irakasteari ekiten diogu.

**Trebetasun horiek nola lortzen dira?**

Burmuinaren zereginik garrantzitsuenetako bat ideiak sortzean datza. Nabarmenak dira herri-tarren artean ahozko azalpenerako gaitasun urria, argumentaziorako eta arrazoibiderako eraginkorrerako eta emozio-inteligentziarako ezagutzarik eza. Informazioa, ezagutza eta eskarmentua ez dira nahiko eta, beraz, konbinatzen jakin behar dira. Inteligentzia garatzeko, ikasketarako baliabide estrategikoak eta ikasketa optimizatzen lagunduko diguten metodologiaren jabe izatea ezinbesteko tresna dira. Metodori gabe burmuina no-raezean uzten dugu.

**Zein da Prakagorriren ulermen jasoko irakurketa azkarra [PUJAM] metodologia egitearen onura?**

**Prakagorri**ren irakurketarako metodologiaren bitartez irakurketaren abiada errotik aldatuz maila jasoetan kokatzea lortzeaz gain, arreta, kontzentrazioa eta batez ere ulermen maila sustatit altatzea lortzen dugu. Irakurketa azkarrerako gure metodologiaren bitartez, atentzioa,

“**Zoritxarrez oso gutxi irakurtzen da, motel, ulermen urriz eta noizean behin**”

kontzentrazioa eta ulermena maila jasoetara eramaten ditugu. Irakurle motel eta ulermen urrikoak ulermen jasoko irakurle eraginkor bihurtzen ditugu.

**Irakurketarako zuon metodologia nori zuzenduta dago?**

Gutxieneko baltzintza batzuk bete behar dira, hau da: 9 urte eginda izan eta irakurtzen jakin. Gure metodologia, irakurketan arazoak dituztenentzako eta arazorik ez izanez, euren irakur-gaitasuna epe laburrean hobetu nahi duen orori zuzenduta dago.

**Nola lortzen da hobekuntza hori? Gehiago irakurriz?**

Gehiago irakurtzeak, berez, ez dakar ulermena eta abiadura hobetzerik. Ohiko irakurketak ulermena oztopatu eta abiadura erabat moteltzen dituen aje asko ditu. **Prakagorri**ren irakurketa metodoarekin irakurketarako eredu erabat aldatuz abiadura eta ulermen maila jasoak lortzen ditugu.

**Azkar eta ulermen jasoz irakurtzen, zein epetan ikas daiteke?** Emaitzak bakoitzaren ahalegin, interes eta gogoaren arabera-koak diren arren, sei hilabetetan, gogor, etengabe eta disziplina handia izanez maila bikaina lor daiteke. Ez dago ahelegin handirik egin gabe emaitza bikainik lortzerik eta irakurketarekin ere gauza bera gertatzen da.

**Irakurle onak al gara?**

Zoritxarrez ez. Oso gutxi irakurtzen da, motel, ulermen urriz eta noizean behin bakarrik. Hitzez irakurketa garrantzitsua dela aipatzen dogu baina ekintzez aurkakoa adieraztera emoten da. Hilero, batz bestea, irakurle bakoitzak liburu bat besterik ez du irakurtzen. Irakurketari buruz

ez dogu hausnarketa sakonik egiten eta are gutxiago trebetasun horri buruzko autokritikarik.

**Irakurketa ikastaroak nola iragartzen dituzue?**

Gure metodoak ikastetxeetan, ematen gabiltza, taldeak bertan eratu eta eskolaz kanpoko ekintza bezala antolatuz, horretara ikasleen denbora eta ordutegia egokitasunez kudeatuz. Udaltxeen bitartez irakurketa tailer-rrak antolatzen gabiltza ulermena eta irakurketa areagotu eta sustatzeko. Ikasleen Guraso Elkarteetan hitzaldiak emanez eta bestalde, urtarriletik aurrera enpresei ere zuzenduko gaitzaizkie

**Ikastaroak nola ematen dituzue?**

Ikastaro guztiak taldean ematen ditugu, dinamikak ere interesgarriago eta erakargarriago baitira. Ikasleek, taldean, beste batzuekin batera, gaitasun askoz gehiago barneratzen dituzte eta hori onuragarria da oso.

**Azarotik aurrera Ikasketa Intentsiborako Plana abiaraziko duzue. Zertan datza?**

Bai, sortu berria dugun ikastaro horren bitartez ikasleari bere ikas jardueran ikasketa integrala garatzen irakatsiko diogu. Beraz, Ikastetxean ikasturtean zehar ikasleak garatuko dituen ikasgaiak **Prakagorri** HIRU HILABETETAN nola menperatu ditzakeen irakatsiko diogu. Ikasleek euren plangintza eta ikas-programa garatu eta jorrazteko erabateko gaitasuna dute. Ikasketa arrakastatsua erabateko dedikazioz, helburu zehatzez, antolaketa bikainez eta metodologia egokiz besterik ez da lortzen eta hori da irakatsiko duguna.

**Beste zein ikastaro ematen dituzue?**

Gaitasun intelektualak bere osotasunean garatzeko ezinbestean jorratu behar diren memoria teknika, ikas-metodoak, komunikazio eraginkorrerako teknika, emozio inteligentzia, etab. ere ematen ditugu. Gaitasun horiek guztiak ezinbestean jorratu behar dira egungo gizarte honetan arrakastatsua jarduteko jakintza bera baino gaitasun garrantzitsuagoak baitira.



**irakurri 4**  
**ALDIZ ARINAGO**

**PRAKAGORRI**  
*Reading skills*  
94 491 57 63  
DURANGO  
Barrenkale 20  
prakagorri@prakagorri.es

**Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!  
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.  
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.**

**9 urtetik aurrera, adin muga barik,  
PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide**



## Stai Zitto | Musika taldea | Mallabia-Ermua

> **MUSIKA** Itsaso Esteban  
Maialen Arrizabalaga abeslariak, Xabier Martín tronbonistak, Andoni Conde gitarristak, Asier Uranga bajistak eta Gorka Martínez saxofonistak aurkeztu digute Stai Zitto taldea. Asteburuan oholza izango dutenetik gertu erantzun diete galderei musikariek: Mallabiko plazan. Bost horiekin, Julen Rodriguezek, Danel Ferreñok eta Asier Cascanek osatzen dute taldea. Oso talde gaztea da, duela urtebete sorturikoa, eta oso gazteak dira taldeki-deak ere: 16 eta 23 urte artekoak. Ermu eta Mallabiko gazteek italieraz ipini diote taldeari eta lehenengo diskoari izena: 'Stai Zitto' (Egon isilik).

Berezia da zuentzat bihar Mallabiko jaietan jo ahal izatea? **Maialen Arrizabalaga:** Oso gauza berezia da taldekide guztiontzat. Betidanik etorri izan gara Mallabiko jaietako kontzertu handiak entzutera, eta orain gu oholza horretatik aritu ahal izatea ikaragarria da! Amets bat egia bihurtzea izan da. **Axier Uranga:** Sekulako motibazioa da biharko kontzertua! **M.A.:** Gainera, Su Ta Garren, Vendettaren eta Trikizioren aurretik jo ahal izatea aukera itzela da. Kaleratu dugun lehenengo diskoan Aitor Gorosabelen kolaborazioa eduki dugu, eta alde horretatik ere berezia izango da.

Zelako kontzertua izango da Mallabikoa? Zuen urtebeteko ibilbidearen erakusle? **M.A.:** Bai. Batetik, kaleratu berri dugun diskoko zazpi kantak joko ditugu. Eta, bestetik, bertsiotzek ere joko ditugu, jendea gu entzutera erakartzeko. **A.U.:** Jendea animatzeko ondo

## “Egia bihurturiko amets bat da guretzat Mallabiko jaietan jo ahal izatea”

Urriko jaietan, Mallabiko parkean joko dute, bihar, Mallabiko eta Ermuko Stai Zitto taldeko musikariek



egoten da bertsiotzek. Berri Txarrak, Talco eta Jet taldeen kantak joko ditugu.

Ematen du doinu alaiak bestelako doinu patxadatsuekin uztartzeko mugarik ez diozuela ipintzen zuen buruei.

**A.U.:** Horrela da: taldekide bakoitzak bere estiloa du, eta, abestiak sortzean, bakoitzak bere

ukitua ematen dio kantari. **M.A.:** Soy ceniza kantagaz, esaterako, oso identifikatuak sentitzen dira Andoni eta Asier. Niri *Cinco sentidos* gustatzen zait gehiago, eta Axierrek, adibidez, *Sei sustraiak* abestiaren doinu melodikoagoak ditu gogoko. Horren guztiaren uztarketa da azken batean Stai Zitto.

Beste talde batzuetan entzuten ez diren detaile instrumentalak entzuten dira zuen kantetan. Perkusioan, esaterako.

**M.A.:** Bai, izan ere, maila itzela dauka Danelek: bere erritmoeekin, taldearen zuzendaria izaten da kontzertuetan. Bateriaren erritmoa sentitzen dugu, eta denok hartzen dugu gidari.

Zelan sortu da Mallabi eta Ermuko musikarion harremana?

**A.U.:** Duela zenbait urte, beste talde batez hasi ginen taldeki-deetako batzuk, eta kide berriak elkartzen joan zitzaizkigun harrezkero. Lehenengo abeslariak utzi egin zuten taldea, eta Maialen hasi zen abesten.

**M.A.:** Aspalditik ezagutzen dugu elkar, musika eskolan elkarrekin ibilitakoak gara, Ermuko musika bandako kideak ere bagara beste batzuk...

“**Su Ta Gar, Vendetta eta Trikizioren aurretik jotzea aukera itzela da”**”

“**Apustu handia izan da diskoarena, lan polit eta serioa egin gura genuelako”**”

Zer ezaugarri ditu Stai Zitto zuen lehenengo diskoak?

**M.A.:** Alaia eta freskoa da, batez ere. Nahiko musika berezia egiten dugu, eta oso kolaborazio interesgarriak eduki ditugu: Su Ta Garreko Aitor Gorosabelena, Hesian taldeko Zuriñe Hidalgorena eta *Cillo* abeslariarena.

Zelan lortu duzue diskoaren grabazioa aurrera ateratzea?

**M.A.:** Apustu handia izan da diskoarena, lan polit eta serioa izatea gura genuelako. Horregatik jo genuen Higain estudioara. **A.U.:** Inbertsio gisa ulertzen dugu diskoa, uste dugulako bes-

te ate batzuk zabaltzeko aukera emango digula.

Letra gehienak euskaraz dituzue, baina gaztelaniaz ere badituzue bi. Zeren arabera aukeratu duzue hizkuntza?

**M.A.:** Melodiaren arabera izaten da. Sortzen nagoela ateratzen zaidan lehenengo berbaren arabera egiten dut. *Cinco sentidos* kanta, adibidez, Andaluzian nengoela sortu nuen, eta gaztelaniaz idatzi nuen.

Zuzenekoetarako nahi beste aukera izan duzue orain arte?

**M.A.:** Ermuan eta Eibarren nahikotxo jo dugu, eta Basaurin eta Legazpin ere eskaini izan ditugu kontzertuak. Gaztetxeetan eta txosnaguneetan jo izan dugu. Tartean diskoa grabatu dugunez, ez gara zuzenekoetan gehiegi zentratu.

**A.U.:** Taldea ezagutarazteko erabilgarri izango zelakoan kaleratu gura genuen diskoa, eta hemendik aurrera ahal beste jotzea da helburua.

Zelan irudikatzen duzue Stai Zitto taldearen etorkizuna?

**A.U.:** Gure musika ahal beste kontzertutan eskaintzen, egiten duguna jendeari helarazteko.



Taldearen izen bereko lehenengo diskoaren azala.



**Itsaso Gartzia** | Tabirako-Baqué saskibaloia klubeko presidentea | Durango, 1967

**> SASKIBALOA** M. Onaindia  
Lau urtez presidenteorde eta beste lau urtez presidente izan ostean, Tabirakoko zuzendaritzan erreleboa behar dela uste du Itsaso Gartzia. Momentuz ez da inor agertu, eta esperientzia ona dela aitortuta, jendea animatu gura izan du. Ez ei da nahitaezkoa saskibaloian aditu izatea, baina bai kirol arlo indartsu bat antolatzea. Tabirako bihotzean eroango duela dio.

**Zer dela-eta utziko duzu Tabirakoko presidente kargua?**

Nire ustez, kontzeptu desberdinak dira *uztea* eta *ez jarraitzea*. Nire legealdia 2015eko ekainaren 15ean amaituko da, eta zortzi urtez Zuzendaritza Batzordean egon ostean, beste pertsona batzuk eta ideia berriak behar direla uste dut.

**Zelako esperientzia izan da?**

Orokorrean, esperientzia ona izan da, baina zortzi urteotan momentu zailak ere bizi izan ditut. Proiektu honek kateatu egiten zaitu, eta momentu on eta ez hain onak balantza batean ipiniz gero, onek irabazten dute. Oso garrantzitsua da Durangoko gazteen alde lanean zabiltzala jakitea.

**Noiztik zaude klubari lotuta?**

Gaztetan oso gutxi jokatu nuen, eta, gero, nire hiru umeen harira, berriro sartu nintzen giro honetan. Dagoeneko hamahiru urte daroadaz Tabirakori lotuta. Beti gustatu izan zait laguntzea eta gauzetan inplikatzeta.

**Bertan bizitako zein momentu on nabarmenduko zenuke?**

Bizitza osoan gordeko ditudan momentu on pilo bat dauzkat, benetan. Pare bat aipatzeko, kirol arloari dagokionez, mutilek EBA mailan jokatu zuten denboraldia oso polita izan zen; eta Lehen Mailako nesken iazko denboraldia oso berezia izan zen. Klub moduan, oster, Tabirakoren 50. urtemuga eta Cafés Baqueren 40. urtemuga gogoraztea ere berezia izan zen.

**Eta kritikak eta kexak?**

Kritikak eta eskaerak era onean egiten badira, ez dut sekula eduki edozeri buruz berba egiteko arazorik. Tabirako oso familia handia da, eta beti ezin dituzu gauzak denen gustura egin. Batzuek ez dute hori ulertzen, eta kontra jartzen dira. Urteotan pare bat kasu desatsegin eduki ditut, eta txarto pasatu dut. Baina esperientziak horrelako gauzak kudeatzen ere irakasten dizu.

## “Tabirako ezin duzu egun batetik bestera bihotzetik kendu”

2015eko ekainetik aurrera, urtetako lanaren ostean, Itsaso Gartzia ez da Tabirakoko presidente izango



**Jende asko egon da Tabirakon.**

Bai. Adibidez, aurtengo denboraldian 710 fitxa egin ditugu, eta 125 bat entrenatzaile dauzkagu. Familiak, lagunak eta zaleak gehitzen badituzu, oso kopuru handia da. 55. denboraldia da, eta, zifrak kontuan hartzen baditugu, durangar piloa pasa da.

**Eta zelan dago kluba?**

Bizirik eta osasun onagaz. Ez dizut esango kirol arloan inoiz baino hobeto gaudenik, baina oso egoera onean gaude. Sei talde dauzkagu Euskal Ligan, eta gero eta talde gehiago edukitzen dugu urterik urtera. Agian jendea egoera ekonomikoagaz kezkatuta dago, baina ez da txarra. Murrizketa asko egin ostean, eta babesleen laguntza ondo kudeatu eta gero, beldur barik aurrera joateko moduan gaude.

**Jokalari gehienak neskak dira. Poztekoa da, ezta?**

Poztekoa eta kezkatzekoa. Gero eta neska gehiago dauzkagu,

“**Abendurako inor ez bada agertzen, ezohiko batzar bat egingo dugu**”

eta gero eta mutil gutxiago. Ezin ditugu neska guztiak hartu, eta zoritxarrez batzuk kalean gertzen dira. Bestetik, aurteten eta iaz mutilen taldeak ateratzeko arazoekin ibili gara. 710 jokalarietatik, 520 neskak dira, eta 190 mutilak. Neskei bideratutako kirol aukera aberastu behar dugu, eta udalagaz berba egin izan dugu horretaz. Aukera gutxi daukate, eta saskibaloia denez ezagunena, guztiak Tabirakora etorri gura dute. Baina ez daukagu kantxa eta entrenatzaile nahikorik. Mutilekin alderantziz gertatzen da; elkarre asko dago, eta mutil guztiak Athleticeko jokalaria dituzte eredu.

**Heziketa ala emaitza?**

Gazteen heziketa oso garrantzitsua da, baina ez dugu ahaztu behar kirol elkarre batean gaudela. Normalean, emaitzak lanaren eta esfortzuen ondorioak dira.

**Udako eskola ere badaukazue.**

Proiektu hori nire *ume txikia* da, ni hasi nintzen egitasmo horregaz. Zazpi ediziotan, Durangaldeko 1.000 ume baino gehiago pasa dira. Aberasgarria da Tabirakorentzat eta Durangorentzat. Hurrengo zuzendaritzak ekintza horregaz jarraitzea espero dut.

**Zer behar da Tabirakoko presidente izateko?**

Tabirakoren alde lan egiteko prest egotea, modu orokorrean. Aita edo ama bazara, argi eduki behar duzu kluba zure seme edo alabaren taldea baino askoz gehiago dela. Denboraldian barrena zure seme edo alaba dagoen taldearen inguruko eraba-

ki bat hartzea egokitu ahal zaitu, eta ezin duzu dudarik eduki.

**Eta inor ez bada agertzen?**

Abendurako inor ez bada agertzen, ezohiko batzar bat egingo dugu, bazkideen artean soluzio bat topatzeko. Estatutuek diote, inor agertu ezean, kluba desagertu ahal dela. Horretara ez ailegatzea espero dut.

**Klubari lotuta segituko duzu?**

Partiduak ikustera etorriko naiz, noski. Zalea izango naiz beti; Tabirako ezin duzu egun batetik bestera bihotzetik kendu. Amaitzeko, eskerrak eman gura dizkiet entrenatzaileei eta zuzendaritzako kideei: Fede, Aitor, Besi, Mertxe eta, bereziki, Ina Mendiberi; presidenteordea eta lagun indartsuena izan da. Esker bereziak Popiri konfiantzagatik, eta baita aurreko presidente Hilariori ere, asko irakatsi zidalako. Beti edukiko dut gogoan guztien laguntza eta esfortzua.



# Etzi Burgosi irabazten badio, lidergoa eskuratuko du DRTko gizonen talde nagusiak

Iaz partidu bakarra irabazi zuen DRTk, eta aurtengo denboraldian bost partidutik lau irabazi ditu honezkero



DRTko gizonen talde nagusia eguazteneko entrenamenduan Ines Etxegibelen azalpenak entzuten. Ainara Petite Madariaga.

**> ERRUGBIA** Joseba Derteano DRTko gizonen talde nagusian erabateko aldaketa eman da iazko denboralditik aurtengora. Iaz partidu bakarra irabazi zuen. Aurten, bost partiduren ostean, ez daki galtzea zer den oraindik: lau garaipen eta berdinketa bat. Saiklapeneko bigarren tokian dago, eta domekan, 12:30ean, Burgos liderrak bisitatu du Arripausueta. Lidergoa egongo da jokoan.

Durango Rugby Taldea sortu zenetik -25 urtetik gora- bertako presidentea den Joan Manuel Iriondo Txapok denetarik ikusi du: momentu onak, txarrak, hala moduzkoak... Taldea nondik datorren eta nora doan dakienik inon bada, bera da. Taldearen martxa ona azaltzeko hainbat faktorek bat egin dutela uste du. Guztiaren oinarrian orain urte batzuk markatu zuten norabidea dago: "Harrobiko lana eta

errugbi eskola baten sorrera. Gaur egun talde nagusian dabilzanetako gehienak DRTko beheko mailetatik apurka etorritako jokalariek dira". Alde horretatik, Aratz Gallastegiren lana azpimarratu du.

Ondoren, Ines Etxegibelen etorrera dago: "Jokalariek, beharbada, ez zuten ondo barneratu aurreko entrenatzailearen mezua, baina Inesena segituan barneratu dute. Uztaileko ba-

tzar batean jokalariei argi azaldu zien zer eta zelan nahi zuen, eta jokalariek topera dabilta!". Defentsa lana asko hobetu dute, entrenamenduetan asko lantzen dutelako: "Aurten askoz gaitzagoa da guri entseguak egitea". Defentsa sistema asimilatu ostean, erasoko jokoak hobetzea izango da hurrengo erronka.

Taldea utzita izan duten jokalarien etorrerak ere balio izan du pizgarri moduan. Beñat Espinosa eta Paul Larrabeiti, esaterako, errugbira itzuli dira, eta "gazteek jokalariek horiek ikusten dituztenean, ilusioz gainezka daudela ikusten da". Aurten 35-40 jokalaririk batzen dira entrenamenduetan, eta "kopuru hori ez zen normala aurreko urteetan". Arripausueta hurreratzeko den zale kopuruak ere gora egin du; etxeko azken partiduan 400 bat zale batu ziren.

Testuinguru horretan, bihariko norgehiagoka taldeak aurten zer eman dezakeen ikusteko proba ona izango dela uste du Iriondok. Burgosek hainbat atzerritar ditu -ingeles bat eta argentinarrak, adibidez-, baina "guk etxeko partiduetan konplexu barik jokatu, eta irabaztera irten behar dugu", adierazi du Iriondok.

## ADITUAREN TXOKOA



### Gotzon Gomez

Errugbia

#### Lidergoa jokoan

Bosgarren jardunaldia bete denean, hor ditugu durangarrak, aspaldiko partez, saiklapeneko goiko postuetan. Pare bat urte azken postuetan eman ondoren, eta partiduetan izugarri sufritu ostean, Ines Etxegibelen zuzentzen duen taldeak lidergoa eskura du asteburu honetan. Zeintzuk dira aldatetaren gakoak? Nire ustez, hainbat dira.

Batetik, entrenatzaileen lana aipatuko nuke, Inesena, baina baita Ricardo Acostarena, bakoitzak bere ezaugarriekin (baina beti lana, lana eta lana). Bestetik, azpimarragarria da jokalaririk batzuen itzulera. Ez da nire asmoa jokalaririk zehatz batzuk gorai patzea, baina Paulek, Dimak eta Hercek indarra eta kemena dosi handietan eskaintzen diote taldeari. Eta hirugarrenik, agian funtsezkoena, azken urteetan hori aritutako jokalaririk izugarri hazi dira. Zer esan nahi dut? Irabaztea erraza izan daiteke, baina galtzeak eta sufritzeak jokalaririk haztea dakar, eta badago jokalaririk multzo bat irabazteko gogo eta grina zuena, eta jokalaririk horiek orain izan dute barruan zuten kalitatea erakusteko aukera (Termi, Mikel, Beñat, Zorion, Pepi, Enrike eta abar). Horiekin batera, aurreko batean aipatu nuen belau-naldi berriaren etorrera.

Noiz arte? Galdera gaitza; azken momentura arte hori aritzeko itzaropena eduki behar da, baina batek daki! Garrantzitsua da asteburu liderra hartuko dutela Landakon, Burgosko Aparejadores taldea. Irabaziz gero, lidergoa! Hor dago erronka, baina azken urteotako sufrimenduen ondoren, merezitako saria jasotzen ari dira. Eutsi goiari DRT!

## Arbek zapore gazi-goza Durangoko final bietan

Final bat irabazi, eta bestean min hartu zuen

### > ZESTA-PUNTA

Joseba Arbe zestalariak final bi jokatu zituen joan zen asteburuan, Durangoko Ezkurdi Jai Alain. Batean txapela jantzi zuen, eta bestean min hartu zuen. Barikuan Jai Alai World Tour barneko lehen garaipena lortu zuen Joseba Madarietaz batera. Finalean Kevin Ithurria eta

Ekhi Aio menderatu zituzten. Zapatuan XXXI. San Fausto Zesta-punta Txapelketako finala jokatu zuen, Zabalagaz bikotea osatuta. 27-21 irabazten zihozela, zuntz haustura izan zuen besoan, eta ezin izan zuen jarraitu. Zabalak, bakarrik, ezin izan zuen ezer egin Lesbats eta Etcheverriaren aurka.

## Burgosko ziklo-kros proban Saioa Gil irabazle

Espainiako Kopako lehen postuan kokatu da

### > ZIKLO-KROSA

Joan zen asteburuan Medina de Pomar herriko ziklo-kros proba lehiatu zuten, eta Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Saioa Gil izan zen onena kadete mailan. Bere arerio zuzena, Luisa Ibarrola, nagusitasunez menderatu zuen. Ondorioz, Espainiako Kopan lider jarri da

Gil. Azpimarragarria da Andere Basterrak lortutako laugarren postua ere, debuta zuelako ziklo-krosean.

Elite mailan, laugarren tokian amaitu zuen Naia Alzolak. Emaizta on horien ostean, Iurretako taldeak Karrantzan (Bizkaia) izango du hurrengo hitzordua, domeka honetan.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!  
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@	anboto@anboto.org
☎	946 816 558
✉	Izen-deiturak Helbidea Herria Posta kodea Telefonoa

Anboto komunikabideak - DHK  
Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA



Anbotoren lagunen artean Eusko Label produktuen otzarak zozkatuko ditugu

anboto  
lagunak

hazi  
LANDA, ITSASBERRI ETA LAGUNAREN SUSTAPENA  
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

anboto



# RENAULT OCASIÓN

## ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK



PREZIOA  
EKIPAMENDUA  
HAINBAT AUKERA  
BERMEA

**5 RENAULT MÉGANE  
DYNAMIQUE  
115 ZP gasolina  
2013an matrikulatua**

**13.000€**

### RENAULT OCASIÓN

**GAURSA**

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA / GRAN VÍA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO

\*\*Eskaintza 14/10/31n bukatuko da, edo izakinak agortzen direnean Renault GaurSan (5 unitate), RCI Banque Sucursal en España-rekin gutxienez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuentzako deskontu-promoziorekin bidez. Gutxienezko epea 24 hilabete. RECSAK eta GaurSak eskaintako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-ekaintza batzuekin. Kontsultatu baldintzak kontzesionarioan. Irudiko modeloa: Renault Mégane Berlina Limited TCe 85 kW (115 ZP) S&S pintura metalizatuarekin.

Renault gomendatu 



[www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)



# Urritxen erakutsitako sendotasunak goialdean kokatu du Amorebieta

Etxean ez du lehiarik galdu, eta, lortutako puntuei esker, goialdean dago



Asteburuan Tudelano taldearen zelaian jokatuko du Amorebietak. Jon Iglesias.

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Bigarren B Mailan bederatzi jardunaldi joan dira, eta dagoeneko ez dago esaterik talde bakoitzak sailkapenean duen postua kasualitatea denik. Taldeek gorabeherak izaten dituzte denboraldian barrena, baina liga hasiera on bat konfiantzagaz lanean jarraitzeko helduleku proposa da. Amorebieta da azaldutako horren adibide. Zortzigarren dago, lehen lau postuetatik gertu.

Bigarren B Mailako bigarren multzoa estu-estu dago. Barakal-

Etxean hiru partidu irabazi eta bi berdindu ostean, sailkapenean zortzigarren tokian dago Amorebieta

do liderraren eta hamargarren postuan dagoen Guadalajara-

ren artean hiru puntuko aldea besterik ez dago. Jardunaldi bakar bateko emaitzak nahiko dira sailkapena dantzan jartzeko. Horregatik, Josue Atela entrenatzaileak sailkapenari ez diotela asko begiratzen aitortu du: "Entrenatzaile berria, zuzendaritza berria, jokalar berri asko... Aldaketa asko dira, eta eguneroko lanean zentratuta gaude. Sailkapenari oraingoz ez diogu askorik erreparatzen".

## Zuazubiskar hamargarren, Europa mailako estreinaldian

Europako Txapelketan parte hartu duen lehen aldian, hamargarren amaitu du jazarpen proban

### > TXIRRINDULARITZA

Guadalupe irlan (Antillak arxipelagoa, Karibeko kolonia frantziarra) Pistako Europako Txapelketa lehiatu dute. Parte hartzen zuen lehen aldian Illart Zuazubiskar abadiñarra hamargarren sailkatu zen (4.43.524) jazarpen proban.

Zuazubiskarrek bakarkako eta taldekako jazarpen probetan lehiatzeko asmoa zuen. Baina taldekakoan ezin izan zuen parte hartu, bere taldekideek ez zutelako sailkatzerik lortu. Bakarka hamargarren sailkatu zen; emaitza oso ona da, kontuan hartuz gero lehenengo Europako Txapelketa zuela eta ezin izan zuela aurreko egunetan pista horretan entrenatu. Izan ere, txapelketaren aurreko egun bietan urakan zakar bategi jo zuen Guadalupe irla, eta

hotelean egon behar izan zuen nahi eta nahi ez. Beraz, pista egokitzeko entrenamendu barrik parte hartu zuen jazarpen proban. Bizikletaren garapenean ez zuela asmatu onartu du, eta horrek hiru-lau segundo galduarazi zizkion. "Oso pozik nago, baina pistan bertan entrenatzeko aukera izan banu, bi-hiru postu gorago amaitu nezakeela uste dut", adierazi du Zuazubiskarrek.

### Calvo eta Elorriaga

Eustrak taldean lehiatzen duten Tania Calvo gasteiztarrak eta Unai Elorriaga barakaldarrak beste domina bana irabazi zuten pistako Europako Txapelketan. Calvok zilarra jantzi zuen abiadura proban, eta Elorriagak brontzea irabazi zuen *omniun* proban.

## Tornosolo Kopako finalak jokatuko dituzte domekan

### > TRINKETEA

Trinkete Tour lehiaketaren barruan dagoen Tornosolo Kopako finalak jokatuko dituzte domeka honetan, 11:30etik aurrera, Abadiñoko trinketean. Elite mailako protagonistak nortzuk izango diren erabaki barrik dago oraindino. Izan ere, finalerdiak gaur jokatuko dituzte, 18:30etik aurrera.

Gaurko lehenengo finalerdian Antxia abadiñarra eta Rafael neurtuko dira. Bigarren finalerdian González berriztarrak Ugarte izango du kontrario. Beraz, domekan, baliteke Durangaldeko pilotari biren arteko finala ikustea Tornosolo trinketean.

Elite mailako final horren aurretik, Lehen Mailako txapelketa egongo da jokoan. Final horretan Gordonek Bilbaoren aurka jokatuko du.

Amorebietaren indargunea Urritxen dago. Etxean jokatutako bost partiduetatik hiru irabazi eta bi berdindu ditu; porrotik ez. Azkenengo garaipena joan zen asteburukoa izan zen: 1-0 Conquenseren aurka. Asier Goiriak 85. minutuan sartu zuen partiduko gol bakarra, jokaldi nahasi bateko aldaratze bat ehizatu, eta errematatu ostean: "Oro har, ez genuen ondo jokatu, batez ere bigarren zatian. Taldearen kastak eta adoreak eman ziguten garaipena", azaldu du.

J. Atela: "Conquenseren aurka ez genuen ondo jokatu. Adoreak eman zigun garaipena"

### Kanpoan hobetu behar

Amorebietaren emaitzak ez dira hain onak etxetik kanpora: hiru partidu galdu ditu, eta bat irabazi du. Zinedine Zidane jokalaria ohiaren Real Madril Castillaren zelaian lortu zuen garaipen hori: 0-3. Bestelakoan, esku-hutsik bueltatu izan da.

Asteburuan, Tuteran jokatuko du Amorebietak. Taldeak baja asko ditu aspaldian, txartel pilaketek eta lesioek eraginda, eta baliteke deialdia gazte mailako jokalariekin osatzea. Min hartutakoen artean Joseba Arriaga dago, aurtengo fitxaketako bat. Gihar bikietan min hartu ostean, ezingo du jokatu beste hilabete bian.

## Zornotzaren lehen porrota, 17 puntuko aldea alperrik galduta

### > SASKIBALOAIA

Zilarrezko Adecco ligako hirugarren jardunaldian heldu da Zornotza Saskibaloia Taldearen denboraldiko lehen porrota: 77-75 Lucentum Alicante taldearen kantxan. Partidua zelan garatu zen kontuan hartuz gero, porrot mingarria izan zen. Izan ere, lehia amaitzeko zortzi minuturen faltan Zornotza hamazazpi puntu goitik zegoen markagailuan. Une horretatik amaierara galdu-ta ibili zen taldea. Alacanteko taldea puntu bat aurretik zegoen hamaika segundoren faltan, eta Querok, 4,60 metroko marratik jokalar fidagarria denak, Zornotzaren aldeko jaurtiketa libre biak huts egin zituen. Azken segundoko hiru-koa ere huts egin zuten. Bownam eta Carretok hemezortzi-na puntu sartu zituzten.

## AGENDA

### > FUTBOLA

#### OHOREZKO MAILA

##### Iurretako - Abanto

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

##### Elorrio - Getxo

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

#### MAILA GORENA

##### Abadiño - San Pedro

· Zapatuan, 15:45etan, Astolan.

##### Zaldia - San Ignacio

· Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian.

#### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

##### Berriz - Ugao

· Domekan, 11:30etan, Berrizburun.

#### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

##### Iurretako - Derio

· Domekan, 16:00etan, Berrizburun.

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Amorebieta B - Iurretako B

· Domekan, 18:15etan, Txolonen.

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

##### Zaldia B - Loiola Indautxu

· Zapatuan, 15:45etan, Solobarrian.

##### Durangoko Bikainak - Umore Ona B

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Sasikoa Durango - San Jorge Sanfurtzi

· Zapatuan, 18:15etan, Landako kiroldegian.

#### EUSKAL LIGA

##### Presion Break - Soloarte

· Zapatuan, 16:45etan, Berrizko kiroldegian.

##### Elorrioko Buskantza B - Eskoriatza

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

##### Sapuberri - Mallabia

· Zapatuan, 19:50etan, Landako kiroldegian.

#### EMAKUMEEN LIGA

##### Elorrioko - Kirol Aunitz

· Domekan, 12:15etan, Elorrioko kiroldegian.

##### Sasikoa - Goiztiri

· Domekan, 10:30etan, Landakon.

### > SASKIBALOAIA

#### LEHEN MAILA (gizonak)

##### Tabirako Baqué - Distira Bitxitegia

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

#### LEHEN MAILA (emakumeak)

##### Tabirako Baqué - Getxo

· Domekan, 10:00etan, Landakon.

### > ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA

##### Elorrio Parra tab. - Bera Bera B

· Zapatuan, 16:30etan, Elorrian.

### > PILOTA

#### OLAZAR TXAPELKETA

##### Lau 1'erdian:

##### - Larrañaga - Olaizola

##### Binaka:

##### - Santxo-Erasun / Albarado - Peñas

· Urriaren 30ean, 21:30etan, Zaldibarko pilotalekuan.





# Sahara

## MUNDUKO PAISAIK



**Urriak 28 - Azaroak 14**

### ERAKUSKETAK

- Saharako funts bibliografikoak (liburuak, musika, filmak...)
- "Saharako ahotsak: ahanzturaren kontrako erresistentzia (EUSKAL FONDOA)

**"TURRETATIK SAHARARA" ELKARTASUN BILKETA** - Arropa eta oinetako bilketa egingo da

**Urriak 28**

### HITZALDIA

•19:00 "La realidad saharauí"

Hizlariak: EUSKADIKO FRONTE POLISARIOAREN ORDEZKARITZA, HERRIA AUZO ELKARTEA eta RIO de ORO DURANGO.

**Urriak 29**

### HITZALDIA

•19:00 "Mujeres saharauis"

Hizlaria: ARANTZA CHACON (SEAD-en LAGUNEN ELKARTEA)

**Urriak 31**

### GAZTEENTZAKO SAIOAK

"Saharako errealitatea"

(Tailer praktikoak)

Hizlaria: ITZIAR ITURRI (EUSKAL FONDOA)

(Juan Orobiogoitia ikastetxeko DBH eta Batxillergoko ikasleentzako adostutako saioak)

### SAHARAKO FAMILI TAILERRAK

•17:30 - 19:30 Antolatzailea:

